

# **XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK**

**Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia,  
egunerokoa eta noranahikoa**

## **OINARRIZKO TXOSTENA**

---

**2008ko apirilak 29**



**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**  
**CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**



# AURKIBIDEA

## *HITZAURREA*

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea 11

1. SARRERA 17

2. EUSKARA INDARBERRITZEKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PARADOXAK.  
GAUR EGUNEKO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK 23

2.1. Euskararen gizarte-bilakaera 23

2.2. Abiapuntu legala 27

2.3. Euskararen aurrerakadaren ifrentzua 31

3. XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK  
ETA ERRONKAK 45



## **EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE OSOKO KIDEAK**

1. Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe Markuartu jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
2. Lehendakariordea: Miren Azkarate Villar andrea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
3. Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
4. Joseba Erkizia Itoitz jauna, HABEko zuzendari nagusia.
5. Julian Beloki Gerra jauna, Eusko Irratia S.A.ko zuzendari-koordinatzailea, Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak aukeratua.
6. Joseba Alkalde Amutxategi jauna, Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak aukeratua.
7. Pedro Otxoa Bernales jauna, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aukeratua.
8. Jon Urrutia Mingo jauna, IVAPeko zuzendari nagusia.
9. Lorena López de la Calle andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
10. Miren Dobaran Urrutia andrea, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
11. Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Euskara zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
12. Jokin Bildarratz Sorron jauna, EUDELeke elkarteburua, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria.
13. Andrés Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiko ordezkaria.

Hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artetik organo honen 2007ko urriaren 24ko Aginduaren bitartez izendatuak:

14. Dorleta Alberdi Aretxederreta andrea
15. Sagrario Aleman Astiz andrea
16. Kike Amonarriz Gorria jauna
17. Aurelia Arkotxa andrea
18. Inazio Arregi Gordo jauna
19. Joseba Arruti Lafuente jauna
20. Nerea Azurmendi Zabaleta andrea
21. Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
22. Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
23. Allande Boutin jauna
24. Ana de Castro Rubalkaba andrea
25. Gotzon Egia Goienetxea jauna
26. Ana Eizagirre Garate andrea
27. Aingeru Epaltza Ruiz de Alda jauna
28. Lore Erriondo Korostola andrea
29. Malores Etxeberria Arrese andrea
30. J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
31. Estitxu Fernandez Maritxalar andrea
32. Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna
33. Jokin Gorozika Bidaurrezaga jauna
34. Fernando Iraeta Kintela jauna
35. Jean Claud Iriart jauna
36. Odile Kruzeta Olañeta andrea
37. Miguel Lazpiur Lamariano jauna
38. Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea
39. Anjel Lertxundi Esnal jauna
40. Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
41. Ludger Mees jauna
42. Mertxe Mugika Balanzategi andrea

43. Imanol Murua Uria jauna
44. Eneko Oregi Gofii jauna
45. Rosa Miren Pagola Petrirena andrea
46. Carlos Ruiz Gonzalez jauna
47. Pello Salaburu Etxeberria jauna
48. Miriam Urkia Gonzalez andrea
49. Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
50. Jesus Uzkudun Illaramendi jauna

Eusko Legebiltzarrak proposaturik izendatuak:

51. Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
52. Alberto Lopez Basaguren jauna
53. Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
54. Txomin Peillen Karrikaburu jauna
55. Tomas Uribe-Etxebarria Maiztegi jauna

Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua:

56. Erramun Osa Ibarloza jauna, Kultura Saileko Koordinaziorako zuzendaria

**“XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN  
OINARRIAK” IZENeko BATZORDE-ATAL BEREZIA**

Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-ataleko lehendakaria  
Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria  
Kike Amonarriz Gorria jauna  
Aurelia Arkotxa andrea  
Joseba Arregi Aranburu jauna  
Mikel Basabe Kortabarria jauna  
Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna  
Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea  
Ana de Castro Rubalkaba andrea  
Ana Eizagirre Garate andrea  
Lore Erriondo Korostola andrea  
Miren Dobaran Urrutia andrea  
Gotzon Egia Goienetxea jauna  
Malores Etxeberria Arrese andrea  
Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna  
J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna  
Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea  
Iciar Lamarain Cenitagoya andrea  
Gorka Landaburu Illaramendi jauna  
Miguel Lazpiur Lamariano jauna  
Anjel Lertxundi Esnal jauna  
Jose Luis Lizundia Askondo jauna  
Alberto Lopez Basaguren jauna  
Lucía Martínez Odriozola andrea



Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna  
Jasone Mendizabal Altuna andrea  
Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea  
Xabier Mendiguren Bereziartu jauna  
Ludger Mees jauna  
Mertxe Mugika Balanzategi andrea  
Pedro Ochoa Bernales jauna  
Eneko Oregi Goñi jauna  
Carlos Ruiz Gonzalez jauna  
Pello Salaburu Etxeberria jauna  
Tomás Uribe-Etxeberria Maiztegi jauna  
Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea  
Andres Urrutia Badiola jauna  
Jesus Uzkudun Ilaramendi jauna  
Mikel Zalbide Elustondo jauna

**BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA**

**Oinarrizko Txostena prestatu duena**

Aurelia Arkotxa andrea  
Lore Erriondo Korostola andrea  
Alberto Lopez Basaguren jauna  
Eneko Oregi Goñi jauna  
Pello Salaburu Etxeberria jauna

Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria  
Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-atalburua



# HITZAURREA

---

**Patxi Baztarrika**

***Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea***

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN 2005-2009 aldirako egitasmoa jasotzen duen *Hizkuntza Politika aurrera begira* dokumentuaren 13. jardunbideak hala zioen:

Hizkuntza politikaren arloan egindako bidea eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak aztergaitzat hartuta, hausnarketa eta debatea bultzatzea, kasua balitz etorkizunerako estrategiak, lan-ildoak eta lehentasunak dagokion neurrian birdefinituz. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egin duenez, une egokia da era honetako eztabaida egiteko. Aztergaiei dagokienez, ahalik eta zabalena, eta parte hartzaileei dagokienez ahalik eta irekiena izango da gogoeta. Euskararen munduak ez ezik erdal munduak ere lekua izango du, nahitaez, ekimen honetan. Erakunde publikoak, hezkuntza, kultura, hedabideak, enpresa, alderdi politikoak, sindikatuak, elkargo sozial eta ekonomikoak, euskalgintza (...: esparru guztiek izango dute tokia debate horretan. Iraganaz lasai eta askatasunez eztabaidatzea, eta etorkizunerako lan-ildoak eta lehentasunak finkatzea izango da debate horren egiteko nagusia. Hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak, artikulua, txostenak, ... izango dira gogoetaren tresna nagusiak. Euskararen normalkuntza aurrera jarraitze-ko ilusioa berpiztea izango du debate horrek helburu.

Horiek horrela, 176/2007 Dekretuaren bidez, euskararen alorrean administrazioaren aholkulari den Euskararen Ahol-

ku Batzordearen lana indarberitzeko asmoz, eguneratu ziren funtzionamendu-arauak, jarraipen-batzordeei nahiz berariazko batzordeei dagokienez, eta besteren artean, Euskararen Aholku Batzordearen egitekoei gehitu zitzaien “euskara gizarte arloetan sartzeko jarraibide berriak aztertu eta proposatzeko eginkizuna”. Horren ondoren, 2007ko urriaren 24an, Miren Azkarate Kultura sailburuak Agindu bidez egin zituen Euskararen Aholku Batzordeko Osoko kideen izendapenak.

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak, 2007ko urriaren 25ean, eta Kultura sailburuaren proposamenez, aho batez erabaki zuen “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” izena duen batzorde-atala eratzea; horren altzora, 2008ko urtarrilaren 14an, Ebazpen bidez izendatu nituen batzorde-atal berezi horretako kideak.

Harrezkero, “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atalaren lana elikatzeko, abiarazteko eta gizarte eztabaidari ekin ahal izateko, “XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak” izeneko batzorde-atal bereziko batzorde iraunkorrrak jardun du esku artean duzun oinarritzko txosten hau atontzen. Honi buruz gogoeta egin dezaten eskatzen zaie batzorde-ataleko kideei, honenbestez, nork bere usteekin, bere ikuspegiarekin, aberastu dezan gizarteari erabat irekita dagoen gogoeta saioa. Izan ere, herritarrak dira euskararen indarberitzearen egiazko protagonistak, haien esku, haien gogo-bihotzetan –ezpainetan bereziki– baitaude, hein handi batean, euskararen oraina eta geroa, euskara biziberritzeko giltzarria.

Ordu askoko, eztabaida luzeetako eta askotarikoen arteko adostasunaren emaitza duzue honakoa. Alabaina, ez da dokumentu itxia, inolaz ere, ez eta behin-betiko dokumentu bat ere, hori ez da eta oraingo helburua. Ildo jakinei buruz bainoago, XXI. mende hasierako hizkuntza politikak barnebildu beharko lituzkeen irizpideez ari gara hemen. Halaber, dokumentu honek, taldeko kideek hizkuntza politikari buruz esateko duten guztia ez du laburbiltzen,

ezta gutxiagorik ere, ez baita hori xedea. Taldekideek ñabardura ugari egingo lituzkete testu honen beraren gainean ere, eta esateko askoz gehiago daukate. Testuaren helburua, guztiarekin ere, eztabaida abian jartzea baino ez da. Hizkuntza politikaren argi-ilun batzuei buruzko gogoeta sakona da, egon litezkeen askotariko mugak astintzen dituen, aurreiritzirik gabe idatzitakoa. Aurrera begirako ildoak ere jasotzen ditu. Hori guzti hori da, ez gehiago, baina ezta gutxiago ere.

Urte honen hondarrera –gutxienez– iritsiko den gizarte-eztabaidak aurrera egin ahala, beste dokumentu bat ontzeko ahalegin berritua egingo dugu. Ea kapaz garen hori hezurmamitzeko, ea gauza garen norberarenak ez ezik lagun hurkoaren arrazoieta hurreratzeko, gu guztion beharra baitu euskarak eta haren indarberritzeak. Euskara gu guztiona delako, denontzat delako, inorena eta inorentzat izango bada.

Amaitzeko nire eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet txostena osatzen aritu diren lagunei: Aurelia Arkotxa, Lore Erriondo, Alberto Lopez Basaguren, Eneko Oregi, Pello Salaburu eta koordinazio lanetan jardun duen Erramun Osari.



# XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK

Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia,  
egunerokoa eta noranahikoa

## OINARRIZKO TXOSTENA

---

2008ko apirilak 29





## I. SARRERA

ITXAROPENEZ ETA ILUSIOZ, baina, aldi berean, arduraz idatzitakoak dira ondoren datozenak. Izan ere, euskarari buruzko gogoeta egiterakoan, azken hogeita bost urteotan euskal gizarteak egin duen bide arrakastatsuen argitan, bai baitugu arrazoirik etorkizunari itxaropen eta ilusioz begiratzeko; baina oker eta itsu ibiliko ginateke hogeita bost urteotako ibilbide oparoan izan ditugun hutsegite eta gabeziak ikusteko gai ez bagina, eta etorkizunari begira gaur bertan ditugun erronkak eta arriskuak zehatz-mehatz identifikatuko ez bagenu. Zorionez, errealitateak ez digu hil-kanpaien tristuran amiltzeko eta etorkizunari ezkortasunez begiratzeko motiborik ematen, baina errealitate horrek berak zorrotz agintzen digu ez geratzeko inertzien erosotasunean zer gertatuko zain, guztia ez baitabil nahi genukeen bezain ongi.

Gizarte demokratiko eta aurreratuen ezaugarrietariko bat da politika publikoak oro eztabaidagai izatea. Gurea ere ez da eztabaidarik gabeko gizartea, baina aztergai guztien artean bada bat berebiziko garrantziaz plaza publikoan egon beharko lukeena, plaza horretan betetzen duen baino leku zabalagoa hartu beharko lukeena: euskararen kontua, euskara gure artean indartzeko eta osasuntsuago egitearen aldeko hizkuntza politikaren gaineko eztabaida etengabea, hain zuzen ere. Euskara guztiona bada, guztiok izan beharko genuke zeresanik horretan, eta esateko duguna lau haizetara zabaltzeko eta gainerako ikuspuntuekin kontrastean jartzeko aukera erosoak behar ditugu. Besteak beste, kontsentsu sozial eta

politikoa –hori da euskarak ororen gaintik behar duen arnasbide edo makulurik behinena– eraiki eta etengabe indartu eta hedatzeko ezinbestekoa baita ikuspuntu ugariak patxadaz eta askatasun osoz plaza publikoan jarri eta eztabaidatzea.

**P**olitika publikoak oro eztabaidagai du: horra gizarte demokratiko eta aurreratuen ezaugarrietako bat.

Esan, gauza asko esaten dira euskarari buruz, mutur batetik bezala bestetik tira egiten duten gehiegikeriak askotan. Baina uste dugu, nolana dela ere, euskararen inguruan kritikarako esparrua handitu beharra daukagula. Aurrerantz

oparotasunez jarraitu nahi badugu, ondo egindakoak sendotzea eta gizarteari bere ahalegina aitortzea beharrezkoa den bezala da beharrezkoa eta nahitaezkoa, halaber, kritika. Gaizki egindakoak alde batera uzteko edo hain ongi egin gabeak bideratzeko kritika, kritika lasaia, ustez euskararen aldekoa den edozer kritikatzeko euskararekiko etsaitzat hartua izatearen beldurrik gabe egindako kritika, eta, era berean, euskararen aldeko defentsa sutsu eta beroa esparru ideologiko jakin batean kokatua izateko beldurrik gabe egindako kritika. Eta horretara datoz dokumentu honetan esaten direnak.

Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak, bere 2005-2009rako egitasmoan jarritako puntuari emandako erantzuna da dokumentu hau. Ikus dezagun zer dioen HPSk jarritako puntuak, eta gero irakurleak juzka beza dokumentu honek puntu horri emandako erantzuna bera. Dokumentuaren helburua da orientagarri eta baliagarri izatea HPSk jarritako puntuari eta zabaldutako bideari jarraituz, hala nahi duten lagun guztiek elkarren arteko eztabaida aberasgarri eta irekia egin dezaten. Hara zer dioen Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren aipatu puntuak:

Ez diogu beldurrik izan behar debeteari, ez egiten ari garen gauzen eta daramagun bidearen azterketari ere (...), beti kontuan izan, hipotesi moduan badarik ere, egiten ari garen guztia ez dela agian on, edo ez dela agian egokien, edo ez dela

agian zuhurren. Eta kontuan izan behar dugu, halaber, agian ez garela egin behar litzatekeen guztia egiten ari. Bizi dugun egoeran, autokritikoak izan eta autokritika praktikatu beharra daukagu, baina ez zauria ozpinez erretzeko, ezta egiten dugun ororen inguruan halako susmo-egoera bat ezartzeko ere, ezta zalantza etsigarriak bazkatzeko ere. Nolanahi ere, iruditzen zaigu behar-beharrezkoa dugula euskararen arloan orain arte egindako bidez eta etorkizunaz lasai, askatasun osoan, hitz egitea, euskalgintzaren barruan hala kanpoan. (...) Kritika eta autokritika uztartuz, hutsune eta hutsegite guztien erantzukizuna sistematikoki hirugarren baten bizkar botatzeko tentazioaren aurrean amore eman gabe.

(...) Ez dugu uste kontua horrenbeste denik errezeta berrien bila abiatzea, mirakulu halako batzuen esperantzan. (...) Normala denez, egin beharrezkoa baita egiten ari garena hobeto egitea, gastatzen ditugun diruak hobeto gastatzea, oinarri eta printzipio nagusiek bere horretan jarraitzen badute ere lehenetsunak berraztertu eta birdefinitzea, lan-ildoak birmoldatzea, eta, finean, hizkuntz politikari beste bultzada berri bat ematea, bide batez erakunde-arteko lankidetzeta eta agente ezberdinen arteko elkarlana sendotuz.

Sekulako ahalegina egin da urteotan euskararen alde. Herri-aginteen eskutik eta gidaritzapean, gizarte-ekimeneko eragile ugarien bultzadaz, euskal gizarteak inoiz ez bezalako indarrak jarri ditu urteotan euskara biziberritzeko lanetan:

euskal herritarrek, batzuek aktiboki eta beste batzuek pasiboki, baina guztiek jarrera positiboz, ahalbidetu dituzte euskararen gerora bermatzeko garatu izan diren egitura, diru-hornidura, plangintza eta sustapen-ekimen ugariak, oso neurri nabarmenean hezkuntzan. Geure buruari ahalegin hori aitortzearekin batera galdetu behar dio-

**Euskararen izenean egiten den guztia ez da on eta egoki. Euskararen inguruko hainbat jardun kritikatzeta ez da txar eta desegoki.**

gu, ordea, ahalegin horrek espero zitezkeen emaitzak eman ote dituen eta emaitza guztiak egokiak izan ote diren eta... beste hainbat

**Gizarte prozesuetan ez da kostu sozialik gabeko onurarik. Euskararen aurrerabideak ere kostu sozialak ditu.**

galdera. Dena ondo baino hobeto dagoela uste duenak, ez du galdera beharrik, baina gorabeherarik gabeko prozesu sozialik ez dagoela pentsatzen dugunok, eta uste dugunok kosturik gabeko onurarik ez dela gertatzen gizarte-prozesuetan eta, beraz,

onurak ez ezik kostuak ere baloratu egin behar direla, ezinbestekotzat jotzen dugu galderak egitea egindako bidez eta egiteke dugunaz, galderak eginez baizik ez baititzakegu aurkitu konponbideak eta irtenbide eraginkorrak.

Izan ere, hizkuntza politikari buruzko hausnarketak aldi berean honako bi ikuspuntuok kontuan hartu beharko lituzke: bate-tik, euskara indartzeko eta zokotik plazara eramateko ahaleginak egitea, horretarako neurri zehatzak hartuz, eta, bestetik, neurri horien egokitasuna. Egokitasuna diogu, hizkuntza politika kontuetan “nahia” eta “ahala” ez datozelako beti bat, euskararen aldekoak

**Herritar guztien eskubideak errespetatu behar dira, baina kontuan harturik euskal hiztuna dela eragozpenak dituen.**

diruditen neurri guztiak ez direlako beti euskararen erabilera indartzeko egokiak, hizkuntzaren errealitate sozialak eta euskararen garapen-neurriak aintzakotzat hartu beharreko mugak jartzen dituztelako, gizarte demokratiko batean gehie-

gikeriak uxatu eta pitzadura arriskuak baztertu behar direlako, baina aldi berean herritar gehienak egiazko hizkuntza berdintasun sozialaren mesedean deserosotasunak onartu eta ahaleginak egiteko eta egiten uzteko prest egon behar dutelako, herritar guztien eskubideak errespetatu behar direlako, bai elebidun direnenak baina baita euskal hiztun ez direnenak ere. Badakigu, eta ez da aherentzi behar hori, gure gizartean euskal hiztuna dela gaur oraindik berak aukuraturiko hizkuntzan han eta hemen jarduteko eragozpenak dituen, eta ezberdintasun hori gainditzea dugu helburu, hizkuntza politika

egoki eta orekatuaren bidez, euskararen erabilera indartuz eta bizikidetzan sendotuz. Beste hitzetan esanda: neurri eraginkorrak behar dira nahitaez euskara indartzeko, baina edozer ez da onargarri ezta komenigarri ere, (ustez) euskararen alde bada ere.

Euskararen egoerari begiratuta, argi-ilunak ikusten ditugu gure gizartean. Nolanahi ere, hogeita bost urteotan urraturiko bidearen ondotik, argiuneak dira nagusi, euskararen gaurko egoerak ez baitu zerikusirik ordukoarekin. Baina ilunguneak ere hor dira, eta horiei buruz hitz egin behar dugu. Ez gaitoz inori eta ezeri nota jartzera, eztabaida bideratzea beste helbururik ez dugu. Euskara dugu goiburua, hizkuntza den heinean dugu helburua, eta horregatik euskararen bihar-etziko erabilera dugu jomuga. Hogeita bost urte barru euskal hiztun gehiago izatea, euskara gaur baino gehiago erabiltzen den hizkuntza izatea, lagunarteko eta familia harremanetako hizkuntza ohikoa gaur baino neurri handiagoan izatea, euskal idazleek idatzitako liburuak irakurtzeaz gozatzen duten irakurleak gaur baino gehiago izatea... horiek eta horien antzekoak bakarrik –ez besterik– ditugu buru-bihotzetan gure gogoetak eta galderak egiterakoan. Ikuspegi horretatik ondo egindakoa eta euskara aurrerabidean jartzeko balio izan duena –eta asko da hori– sendotzen laguntzeko, aurrerantz jarraitzeko ditugun arazoak eta arriskuak identifikatzen laguntzeko, eta horien guztien gainean adostasun zabal bat ehuntzen laguntzeko balio badu, balekoa izango da dokumentu hau.

Adostasuna aipatu dugu, adostasuna delako hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengu nagusia, aldi berean demokratikoa eta eraginkorra izan nahi badu. Euskararen erabileraren mesedean indarberritu beharrekotzat jotzen dugun adostasunak politika arloan ez ezik gizartearen luze-zabalean ere arnasa hartzen

**Argi-ilunak ikusten ditugu euskararen egoeran, baina azken hogeita bost urteotan egindako lanari esker, argiguneak dira nagusi.**

**Adostasuna da hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengu nagusia.**

duen adostasun politiko-soziala izan behar du. Izan ere, gure gizarteko hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baita euskararen auzia,

**Euskararen auzia gure  
gizarteko hizkuntzen arteko  
bizikidetzaren auzia da.**

eta hain zuzen ere horrexegatik da begien bistakoa euskararen normalizazioa gu guztion bizikidetzaren muinean txertatzen den faktoreetarikoa dela. Euskararen oraina eta etorkizuna sendo bermatzeak euskal gizartearen bizikidetzaren hobetzea

lekarke berarekin, ez bairik gabe. Bizikidetzaren demokratikoak ororen gainetik "bizikideen adostasuna" behar du oinarri. Horregatik eta, halaber, euskararen erabilera indartu eta areagotzeko bidea egiteko makulu nagusia norbanakoen euskararekiko atxikimendua eta gizarte osoaren bultzada eta babesa direlako dugu, hain zuzen ere, nahitaezkoa euskararen aldeko adostasun politiko-sozial ahalik eta zabalena berreraiki eta etengabe elikatzea. Zenbat eta adostasun politiko-sozial handiagoa, orduan eta ziurrago gordeko ditugu osasunbidean euskara eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren.

## 2. EUSKARA INDARBERRITZEKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PARADOXAK. GAUR EGUNeko EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### 2.1. EUSKARAREN GIZARTE-BILAKAERAZ

Soziolinguistikaren etxean onarpen zabala duen printzipioaren arabera, ondorengo hirurok dira hizkuntza baten –edozein hizkuntzaren– biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak: lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa. Hiru faktore horietako bakoitza aztertu eta baloratzerakoan ikuspuntu ezberdinak –kontrajarriak ere bai, zenbaitetan– daudela bistakoa bada ere, onartu behar dugu euskararen lurraldeetako batean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan zehatz esanda, hiru faktore horien uztardura eta batura baditugula (bestelakoak dira Nafarroa eta Iparraldeko egoerak).

Badakigu hizkuntza-normalkuntza prozesuak prozesu sozial luze eta konplexuak direla, besteak beste gizarteek urte askotako joan-etorrian bereganatu dituzten balio politiko, ekonomiko eta kulturelekin lotura zuzena dutelako, eta herritar bakoitzaren borondate, askatasun, gaitasun eta ohituren mendeko direlako. Hain zuzen horrexegatik da ezinbestekoa euskara biziberritzeko prozesua ere denboraren perspektiban aztertzea.

#### **Euskararen etorkizuna bermatzeko baldintzak:**

- **Lege-marko egokia.**
- **Hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak.**
- **Herritarren atxikimendua.**

25-30 urteko ikuspuntuan bistan da aurrera egin duela nabarmen euskarak. Argi-ilunak tarteko, ordukoa baino erruz hobe da gure hizkuntzaren gaurko egoera. Egunkaria eta aldizkariak irakur ditzakegu euskaraz, telebistak eta irratiak ikus eta entzun ditzakegu euskaraz. Guraso gehienen gogoia da euren seme-alabek derrigorrezko hezkuntzako ikasketak euskaraz egitea, eta gogo hori bete dezakete eta asebetetzen dute. Unibertsitatean ere ikasgai asko, baita karrera osoak ere, euskaraz daude eta hala bereganatzen dituzte milaka ikaslek. Herri administrazioan ere badu presentzia eus-

karak. Euskara ikasi nahi duten helduek, berriz, eskura daukate euskara ikasteko aukera, 139 euskaltegi osaturiko sare publiko eta pribatu profesionalizatuaren bidez.

Milaka hiztun berri irabazi ditu euskarak 25 urteotan. Duela 25 urte, adin zaharrekoen artean biltzen ziren gehienik euskal hiztunak, eta gutxienik gazte, gazetxo eta haurren artean. Gaur, hori justu alderantziz gertatzen da, euskararen mesedean gertatu ere, gazteen artean jadanik gehienak baitira euskaraz dakitenak.

Poetak aipatu zuen harako euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da,

ezbairik gabe. Euskal literaturak, esate baterako, inoiz izan ez duen maila lortu du. Gainera, mundu modernoko literaturekin homologagarria da gaur egun euskal idazleek sortzen duten literatura. Beste horrenbeste esan liteke itzulpengintzaz eta kultura ekoizpenaz oro har. Euskarak inoiz izan ez duen neurriko presentzia du era guztietako liburugintzan, CD-ROM eta DVDetan, filmetan... Itsutasunez edo itsukeriaz bakarrik uka liteke gaur egun euskarak inoiz izan ez duen eremuetan ere presentzia eta tokia irabazi dituela, jende ge-

## **Baldintzon uztarketak ekarri dituen alde on batzuk:**

- **Guraso gehienen gogoia, euren seme-alabek euskaraz ikasteko.**
- **Milaka hiztun berri irabazi ditu euskarak azken hogeita bost urteotan.**
- **Gazteen artean gehienak dira euskaraz dakitenak.**
- **Euskaraz egiten den kultura homologagarria da: euskarak presentzia irabazi du baita inoiz tokirik izan ez duen eremuetan ere.**



hiagoren ahotan eta esparru gehiagotan erabiltzen den hizkuntza dela, alegia.

Hau guztiau esan beharrekoa da hizkuntza politikaren nondik norakoaz eztabaidatuko badugu. Esan beharrekoa da ez noski autoatseginkeria antzuetan eta etorkizunerako begirada guztiz lausotuko lukeen harrokerietan erortzeko. Geroago ikusiko dugunez, gorakada honek bai baititu bere ifrentzuak ere, gogoe-ta sakona eskatzen diguten ifrentzuak.

Hasieran aipatu ditugun hiru faktoreen uztardura eta baturari zor zaio bilakaera hau. Ezinezkoa zatekeen euskarak eman duen aurrerakada ematea, herritarren atxikimendurik izan ez balitz, kolore politiko ugarien gainetik herritar gehienek onartu izan ez balute. Herritar gehienak diogunean, gehientasun hori azpimarratu nahiko genuke: kolore politiko ezberdinetakoak, euskaraz dakitenak eta ez dakitenak... horiek guztiek osatzen dute gehiengo, eta, esate baterako, bistan da euskaraz ez dakiten gurasoek hala nahi izan ez balute, euskarazko irakaskuntzak ez zukeela izan duen hedaturarik izango. Horrek ez du esan nahi herritar guztien euskararekiko atxikimendua neurri berekoa eta bat bera denik, eta hori kon-tuan izan behar da hizkuntza politika garatzerakoan. Konpromiso maila ezberdinak daude, baina euskararekiko atxikimendurik bada.

Aurrerakada hori gertatzea ezinezkoa izango litzateke, halaber, herri-erakundeen aitzindaritzan eta konpromisorik gabe. Euskarak ez du bere historian inoiz ere izan herri-erakundeen aldetik urteotan jaso duen babes eta bultzadaren parekorik edo antzekorik, ezta ere urteotan izan duen baliabiderik: diru-baliabideak, giza baliabideak eta askotariko organismo eta egiturak izan ditu, eta ditu, bere zerbitzuan.

Aurrerakada hori gertatu da, halaber, euskara sustatzeko lanetan diharduten gizarte-ekimeneko elkarte eta enpresen ahalegin

### **E**skarmentuak erakutsitako egiaztapen batzuk:

- **Hizkuntza baten nomalkuntza prozesua beti da luze eta konplexua.**
- **Hango eta hemengo egoerak ez baitira bat eta berdinak, ezin dira modu berdinean tratatu.**

bikainari esker, eta, jakina, hainbat eta hainbat euskaltzaleren lan jarraitu eta aberatsari esker.

Azkenik, aurrerakada hori gertatzea ezinezkoa izango litzateke lege-marko egokirik gabe, hizkuntza-eskubideak aitortzen dituen eta herri-erakundeak garatzen ari diren hizkuntza politika aktiboak garatzeko bidea irekitzen duen lege-markorik gabe. Euskadiko hizkuntza politikaren marko legalak Espainiako Konstituzioan du abiapuntua, Autonomia Estatutuan du oinarria, Euskararen Legean du

### **E**uskadiko hizkuntza politikaren marko legalak:

- **Konstituzioan du abiapuntua.**
- **Autonomia Estatutuan du oinarria.**
- **Euskararen Legean du bizkarrezurra.**
- **Legearen garapenean lortutako kontsentsua du bermea.**

bizkarrezurra eta Lege horren garapenerako arautegi zabalak –lege sektorialez, dekretuz eta aginduz beteriko arautegiak– osatzen du corpusa. Corpus horrek neurri handiko adostasun politikoa izan du makulu. Autonomia Estatutuak eta Euskararen Legeak ez ezik, haien ondoren etorritako Euskal Eskola Publikoaren Legeak edo Euskal Funtzio Publikoaren Legeak edo Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 1997ko dekretuak edo Kontsumitzaileen Legeak (hizkuntza eskubideei buruzko atala barne), esate baterako, ez dute Legebiltzarrean aho-batasunik lortu, bai ordea oso adostasun zabala, nahiz kuantitatiboki hala kuantitatiboki, indar politiko abertzaleen eta ez abertzaleen onarpena izan baitute. Zenbait kontu, hezkuntzari dagozkionak batez ere, oso une erabakigarrietan sozialistek kudeatu izan dituzte. Hau guztiau diogu, esan nahi dugulako, lege-markoaren egokitasuna eta eraginkortasuna ez datzala bakarrik bere arau hotzetan, baizik-eta bere-berea duen adostasun politikoan ere bai: ez da hori, ez, bere baliorik makalena.

## 2.2. ABIAPUNTU LEGALA

Hizkuntza politika orok baditu bi alde: dimentsio instituzionala eta gizarte-dimentsioa. Gure artean, ordea, ohikoa da hizkuntza politikaz jarduten dugunean dimentsio instituzional hutsetik jardutea, hizkuntza politikaren erritmoak eta egokitasuna soilik lege-arauen eta herri-aginteen jardueraren esku baleude bezala. Esan berri duguna argiago ikuste aldera, saia gaitezen honako galdera honi erantzuna ematen: ba al da gaurko euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek trabatzen duelako bertan behera erortzen denik?

Egia da legea bere osotasunean eta legeak aitorturiko eskubideak betetzea kosta egiten dela, eta zenbait kasutan nekez betetzen direla eskubide horiek: Justizia arloa da, ziur aski, horretan gabezia handienak dituen. Egia da, halaber, indarrean dagoen legeriaren garapen-aukera guztiak ez direla agortu oraindik. Gaurko legeriaren eremuan ere bada, beraz, oraindik ibili gabeko tarterik. Sakoneko kontua, ordea, besterik da.

Kontua da, euskara den baino indartsuago ez bada, euskararen normalizazioaren aldeko jardunean gauzak aurrerago joan ez badira, gizarteak oro har mugak ezartzen dituelako dela, errealtatea baita hizkuntza politikaren abiadurari eta nondik norakoari mugak ezartzen dizkiona. Eta komeni zaigu errealtate hori kontuan hartzea, baldin eta hizkuntza politika arrakastatsua eta euskararen erabilera egiazki indartzeko eta areagotzeko balio duena egingo badugu.

**Eskubideak betetzea eta betearaztea, horra oraindik gainditu beharreko koska bat.**

**Marko legalak hiru oinarri nagusi ditu:**

- **Eskubide linguistikoaren aitorpena.**
- **Progresibotasuna: ezin da dena kolpean egin; han-hemengo egoera ez da homoginoa.**
- **Ez neutraltasuna: euskararen normalizazioa du helburu.**

Euskadiko Autonomia Erkidegoko lege-markoaren oinarri nagusiak ondoko hauek dira: batetik, herritarrei hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie, eta herri-erakundeei betebeharrak ezartzen zaizkie herritarrei aitorturiko hizkuntza-eskubideak eguneroko bizitzan egiazki errespetatuak eta baliatuak izan daitezen; bestetik, progresibotasuna, ezinezkoa delako guztia goizetik gauera betetzea, are gutxiago Euskadiko errealitate soziolinguistikoa ez baita homogenea; eta, azkenik, normalizaziorako legeria, zeina ez baita neutrala, ez da *laissez-faire* printzipioaren jarraitzaile, euskararen erabilera normalizatzea eta gizarte elebiduna eraikitzea ditu helburu.

Ikus ditzagun, jarraian, gure lege-markoaren ezaugarri nagusiei buruzko zenbait zertzelada.

### **Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da**

Baieztapen hori, jakina denez, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan agertzen da lehen aldiz gure artean.

Hizkuntza propioa zer da, beraz? Ez da, bistan da, Euskal Herriko hizkuntza bakarra edo, gutxienez, nagusia. Euskal Herriko zenbait eskualdetan euskara baino bertakoagoa da eta/edo izan da gaztelania. Euskara ez da, ondorioz, Euskal Herriak duen/Euskal Herrian mintzatzen den hizkuntza bakarra. Bai, ordea, Euskal Herrian beste inon mintzatzen ez dena. Euskara ez da hizkuntza propioa gure hizkuntza bakarra delako, gurea ez beste inorena delako baizik, gurea baino ez, gurea bakarrik.

Euskara, bestalde, euskal gizartearen kultura ondarearen osagai funtsezkoa da, ezaugarri behinena. Horren haritik, baieztatu behar dugu euskara ez dela soilik euskal hiztunena edota, gutxiago, euskararen profesionalena. Euskara euskal herritarren ondare erkidea da.

## Euskara ofiziala da EAEn, gaztelania bezala

Euskararen ofizialtasuna guztiz onartua eta partekatua da gure gizartean. Ofizialtasun horrek, bestalde, Espainiako Konstituzioan du abiapuntua, eta jarraian, hari beretik, ofizialtasuna ezartzera eta zedarriztera dator Euskadiko Autonomia Estatutua.

Euskararen ofizialtasuna, Konstituzio Auzitegiaren epaiak argitzen duen bezala, ofizialtasun osoa da. Ofizialtasuna Autonomia Erkidegoaren lurralde osora hedatzen da, ez soilik Autonomia Erkidegoaren erakundeetara, eta gaztelaniaren ofizialtasunaren pare-parekoa da, berdina.

Ofizialtasuna aitortzearekin bat, herri-aginteek euskaraz egindako edozein egintzaren balioa onartzen dute eta, beraz, herritarrei euskara balio osoz erabiltzeko aukera ematen diete. Hizkuntzaren erabilera herritarren esku geratzen da eta hizkuntza-askatasuna da irizpide nagusia.

### Marko legalaren hainbat ezaugarri:

- Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da, ez gure hizkuntza bakarra delako, gurea bakarrik delako baizik.
- Euskara ofiziala da EAEn, gaztelania bezala; herritarren hizkuntza-askatasuna da irizpide nagusia.
- Herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Herri-erakundeei dagokie eskubide hori bermatzea.
- Legearen helburua euskara normalizatzea eta elebitasuna lortzea da.
- Dibertsitate soziolinguistikoa eta progresibotasuna, horra legearen bi ezaugarri.

## Herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta herri-erakundeei dagokie eskubide hori bermatzea

Gorago esan bezala, herritarren eskubideetan oinarritzen da gure Erkidegoan hizkuntza politika osoa, ez hizkuntzaren eskubideetan edota lurraldearenetan. Herritarrek, herritar guztiek, dituzte hizkuntza-eskubideak, eta, izan, guztiek berdinak dituzte.

Gure araubidea, horretaz, herritarren borondatean eta herritarren atxikimenduan oinarritzen da, beti ere herri-aginteei dago-

kie “eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen” ziurtatzea. Herri-aginteei dagokie euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko neurriak hartzea. Herritarrek dira hizkuntza-eskubideen jabe eta herri-aginteei dagokie hizkuntza-eskubideak zaintzea ez ezik herritarrek balia ditzaten neurriak hartzea, kasu askotan –eta ezinbestez–, hainbat deserosotasun eragin ditzaketen neurriak, baina beti ere neurri horien zuzentasuna, egokitasuna, proportzionaltasuna eta eraginkortasuna bermatu behar dituzte.

### **Legearen (eta hizkuntza politikaren) helburua euskara normalizatzea eta elebitasuna erdiestea da**

Normalizazioa esaten denean, euskararen erabilera normaltzea esan nahi da, hots, euskara gizarteko eginbide guztietan normaltasunez erabiltzeko aukera izatea. Horrela, euskararen erabilera normalizatzea izan zen –eta da– Legearen helburua.

Helburu hori iristeko bidean, ahulenaren aldeko jokabidea garatu behar dute herri-aginteei eta gizarteak oro har: gizartea berdinkideago izan ahal izateko, egoerarik zailenean daudenak laguntzea da gizarte demokratiko baten ezaugarrietako bat (kasu honetan, euskara eta euskal hiztunak).

Elebitasuna da Legearen (eta hizkuntza politikaren) helburua. Helburua ez da gaztelaniaren aurka jotzea, are gutxiago gaztelaniaz baino ez dakiten eta gaztelaniaz bizi nahi duten herritarren kontra egitea. Legearen eskutik euskarari testuinguru elebidunean eraiki nahi zaio etorkizuna segurtatzeko behar besteko tokia, Errenteriako maisuak esan bezala “erdara ere hemengoa baita”.

### **Dibertsitate soziolinguistikoa eta progresibotasuna dira Legearen ezaugarri nagusietarikoak**

Ezinezkoa baita legerian aitorturiko hizkuntza-eskubide guztiak goizetik gauera betetzea; ezinezkoa baita, halaber, euskararen erabilerearen normalkuntza urte batetik bestera, edo belaunaldi batetik bestera, lortzea, kontuan izanik zenbaterainokoa den euskarak

abiapuntuan duen ahulezia; ezinezkoa baita euskal lurraldeetako egoera soziolinguistiko ezberdinak ahantzita toki guztietan erritmo eta neurri-multzo bat eta bera planteatzea. Euskararen egoera soziolinguistikoa ez da homogeneoa EAEn, eta Autonomia Estatutuak zein Euskararen Legeak biek diote dibertsitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartu behar dela, euskararen erabilera eta ezagutza bermatzea helburu duten neurriak hartzerakoan.

Legean argi gelditzen da hizkuntza eskubideen eragingarritasunak progresiboa izan behar duela. Progresiboak, ordea, ez du esan nahi mugagabe geroragarria. Bistan da euskara bizi nahi duenak bere hizkuntza-hautapena baliatzeko zailtasun ugari dituela gaur oraindik toki askotan. Eskubide hori egiazki nola bermatu, herritar erdaldunen eskubideekin nola uztartu eta progresibotasuna nola gauzatu horiek dira demokratikoki erabakitzeko puntuak.

### 2.3. EUSKARAREN AURRERAKADAREN IFRENTZUA

Esana geratu da euskarak 25 urteotan izan duen aurrerakada handia izan dela, eta bada horri buruzko argitasunik dokumentu honetan bertan, euskararen gizarte-bilakaerari buruzko atalean. Ez goaz, bada, horrelakorik errepikatuzera. Besterik da atal honetan egin nahi duguna: aurrerakada horren ifrentzuaz egin nahi dugu gogoeta. Euskararen aldeko lehia eta etorkizuna irabazteko urratzen ari garen eta datozen urteetan urratu behar dugun bidean aurrez aurre azaldu zaizkigun arriskuak identifikatu nahi ditugu, eta bideratu beharreko lan-ildoak zeintzuk diren argitu, hobetu beharrekoak eta zuzendu beharrekoak hobetzeko eta zuzentzeko.

Inoiz ez bezalako lege-babesa eta sustapena du euskarak, eta hori beharrezkoa du, baina ez da euskararen etorkizuna erabat bermatzeko behar bestekoa, legeak ez baitu, ezin baitu, berez bermatu eta ziurtatu euskararen erabilera. Inoiz baino baliabide eta diru gehiago jarri

**H**erritarron bizikidetzarekatua, aberatsa eta sendoa eraikitzea da edozein gizarte aurreratu eta demokratikoren helburu nagusia.

dira eta hor daude euskararen zerbitzura, eta hori beharrezkoa da, baina ez da euskararen etorkizuna erabat ziurtatua, diruak ez baitu berez euskara noranahikoa egiten. Non dago, orduan, gakoa?

Erabilerara da giltzarria, eta herritarrak dira, gara, protagonistak. Herritarron bizikidetza orekatua, aberatsa eta sendoa eraikitzea da edozein gizarte aurreratu eta demokratikoren helburu nagusia. Bizikidetza horretarako behar dugu euskara, eta bizikidetza horren protagonista bakarrak direnak dira euskarari ororen gainetik behar duen erabileraren hauspoari eragin diezaioketenak: herritarrak, hain zuzen ere. Horregatik da beharrezkoa euskararen aurrerakada euskal herritarren gogo, ahalmen, borondate eta aukeren ikuspegitik ere aztertzea, eta euskararen erabilerak berak, gaurkoak ez ezik bihar-etzikoak ere, dituen ertz ugarietatik aztertzea. Ariketa hori eginenez gero, beharbada helduko gara arrisku batzuk bederen identifikatzera, ohartuko baikara hogeita bost urteotan arlo guztietan ez dugula aurrera neurri berean egin, eta onartu beharko dugu agian zenbaitetan atzera ere egin dugula, eta onartu beharko dugu hobe izango zela, agian, urteotan guztietan egindako zenbait gauza beste modu batera egin izan bagenu.

Euskara, bistan da, ez da hizkuntza hutsa, ez da komunikaziorako tresna neutro bat bakarrik. Gainerako hizkuntza guztiak ere badira esandakoa baino zerbait gehiago. Badakigu euskara sinbolo bat dela, gure gizartearen izaera askotarikoaren ezaugarri behinena, bizirik gorde beharreko kultura ondarea. Badakigu euskara bera ez dela eskubide bat, baina eskubide kontuekin lotuta dagoela erabat, herritarrek badutelako euskaraz bizitzeko eskubidea.

Nolanahi dela ere, euskara, ezer baino lehen, ororen gainetik, hizkuntza da. Koldo Mitxelenak ohiko argitasunez esana utzi zuen hori:

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da



ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora kamutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza kamutsik, honelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zekaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez.

Badakigu, esan dezagun hori ere, erabilera dela hizkuntzaren balioaren benetako neurgailua. Ez alferrik adierazteko balio duen neurrian da ona “aizkora zorrotza”, erabiltzen den neurrian da mintzabide eta adierazpide hizkuntza. Gehiago, gainera: erabiliz bakarrik zorrotz daiteke “aizkora”, eta kamuts bada erabiltzaileek lukete “errua” (“euskaldunek berek dute errua” esan zuen Axularrek). Euskararen erabilera areagotzea eta sendotzea da guk nahi duguna, eta helburu horren kariaz ulertzen dugu esku artean dugun gogoeta hau.

Bi dira, hizkuntza politikaren gaineko gogoeta egiterakoan, kontuan izan beharko liratekeen oinarriak: batetik, euskara mintzabide lez indartzea eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea, eta, bestetik, hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta errespetaraztea. Izan ere, uste baitugu hizkuntza-eskubideen ikuspegitik ez ezik euskararen erabilera areagotzeko eta sendotzeko helburua lortzeko bidean zer egitea komeni zaigun, zer saihestea interesatzen zaigun, zer lehenestea eta zer aldi baterako bada ere bazterrean uztea komeni zaigun argitzearen ikuspegitik ere egin behar dugula euskararen egoeraren eta etorkizunaren gaineko gogoeta, helburu bakarra euskararen beraren interesa izanik. Ikuspegi hori hizkuntza eskubideenaren ondoan jartzeak eragina izango luke hizkuntza politikaren lan-ildoetan eta erritmoetan.

Izan ere, egia izanik lehen baino gehiago egiten dela euskaraz eta milaka euskal hitzun irabazi ditugula, galdetu beharko

### **Euskararen etorkizunerako gogoan izatekoak:**

- **Erabilera da etorkizunaren giltzarria, baina Legeak ezin du bermatu, hiritarrek baizik.**
- **Euskara sinbolo bat bada ere, hizkuntza da ororen gainetik.**
- **Lehenespenen politika bat sustatu beharra dago.**

genioke geure buruari lehen baino askoz gehiago egiten ote duten euskaraz euskal hiztunek beren artean.

Bistan da eskolan, administrazioan, hedabideetan, Interneten,... ikaragarri ugartu dela euskararen presentzia, baina lagunarteko giroan, familian, harreman-sare ez formaletan, kaleko bizitza sozialean edo lantokiko jarduera arruntean, lehen baino askoz gehiago egiten ote dugu euskaraz?

Goraka ote doaz, eta zein neurritan, euskarazko produktuen irakurleak eta ikus-entzuleak?

### **G**alderak orain arte egindakoaz:

- **Euskararen presentzia gehitu da eskolan, administrazioan, hedabideetan, Interneten; gauza bera gertatu al da lagunartean, familian, kalean, lantokian?**
- **Goraka doa euskarazko produktuen kontsumoa?**
- **Gaurko euskal hiztunon euskara adierazkorragoa da?**
- **Euskararen kontsiderazio soziala hobetzen doa?**

Gaur eguneko euskal hiztunok euskaraz adierazkortasun handiagoa ala txikiagoa ote daukagu?

Gutxienak dira bere burua euskararen aurkakotzat jotzen dutenak, eta bistakoa da guztiz ezinezkoa litzatekeela euskararen alde egin den ahalegin itzela egitea, baldin eta gizarteko biztanle gehienak horren alde ez baleude. Baina, zer-nolako kontsiderazio edo aitormen soziala du gaur egun euskarak?

Urteotako ibilbideak agerian utzi du euskararen biziberritzea ezin dela osorik eskolaren kontu utzi, euskararen erabile-ra gizarte-bizitzan indarberitzea ez baita

eskola-kontua, ez behintzat hori bakarrik. “Eskola euskalduntzearekin, eta neurri apalagoan bada ere euskal irrati eta telebista publikoa edukitzearekin, ondorengo belaunaldiek behin-betikoz salbatuko dute euskara”: hori uste izan du 80ko hamarkadako belaunaldiak, eta uste horren gainean eraiki da urteotan hizkuntza politikari eman zaion bultzada emateko beharrezko izan den adostasuna. Uste horrek, ordea, erdia ustel du. Izan ere, gizartea euskalduntzeko bidean eskolarik gabe aurrera egitea ezinezkoa den bezalaxe baita ezinezkoa eskolarekin bakarrik partida hau irabaztea. Uste horrekin

ahaztu egiten da euskararen salbazioak hiztunak eskatzen dituela, ez salbatzaileak, hots, euskara hitzez eta idatziz naturaltasunez erabiltzean datzala gakoa.

Berari dagokiona eskatu behar zaio eskolari; beldur gara, ordea, zenbait kasutan eman duena eta ematen duena hobe badezake ere, kasu askotan, eman dezakeena baino gehiago eskatu diogula. Ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dago bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza ereduaren esku. Faktore ugari dira ikaslearen euskara-gaitasunean eragiten dutenak, eta eskolaren esku ez daudenak: hala nola, esate baterako, gurasoen eta familiako hizkuntza, udalerriko egoera soziolinguistikoa, ikaslearen harreman-sare natural ez formaletako hizkuntza, ikaslearen aisialdirako jarduerak eta askotariko baliabideetako hizkuntza, eta abar. Hizkuntza-eredu berak emaitza diferenteak emango ditu, nahitaez, gune euskaldunetan eta gune erdaldunetan. Adibide gehiago ere aipa daitezke ildo berari jarraituz. Kontua, nolana ere, hauxe da: euskara biziberritzeko prozesuan eskolak egin dezakeena gizarteko gainerako esparruetan egiazki egin daitekeenarekin lotu behar dela, errealitatearen azterketaren argitan egindako diagnostikoan alegia, eta helburuak gorago aipaturiko faktore ugari horiez osaturiko errealitatea oso kontuan harturik zehaztu behar direla, errealitateak berak helburuak eta emaitzak ezinbestez baldintzatzen baititu. Ondorioz, onartu beharko dugu, guztientzako jarritako gutxieneko hizkuntza-helburu orokorrak apalak izatea eta ikastegi ezberdinetako hizkuntza-emaitzak gutxieneko orokorretik gora ezberdinak izatea tokiz toki. Bestela, hizkuntza eta hezkuntza, biak atera litezke kalteturik.

Pernandoren egia badirudi ere, esan dezagun erabilerak lehendabizi eskatzen duen baldintza ezagutza dela, eta horretarako bide segurua da eskolarena. Eskolaren ekarpena ikaragarria izan da euskarak egin duen aurrerakada egin ahal izan dezan. Eskolak,

**Eskolarik gabe ezinezkoa da euskararen biziberritzea; baina eskolarekin bakarrik ezin da partida irabazi.**

gainera, bereziki, hain garrantzitsuak diren erregistro formal, akademiko eta kultuen eskutik transmiti diezaieke euskara ikasleei. Baina erabilerak, ezagutzaz gain eta aldi berean, gutxienez beste bi baldintza ere betetzea eskatzen du: erabiltzeko borondatea eta erabiltzeko aukera. Bi faktore hauek eskolaz haratagoko faktoreak dira, eskola barruko lau hormen artean itotzen ez diren faktoreak alegia.

Bestalde, egia da, eta kezkarria gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo goi-mailetan –batxilerrean, baina, bereziki eta nabarmen, Lanbide Heziketan–, hutsune nabarmena dagoela oraindik ere euskarazko irakaskuntza-eskaintzan. Izan ere, urte hauen ondoren agerian jarri den arazoetariko bat hain zuzen ere hau baita: derrigorrezko esko-

**I**kasketak euskaraz egiten dituzten ikasle askok euskara baztertzen dute kalean.

laldian egindako euskalduntze ahaleginak ez duela, gero, neurriko jarraipenik gainerako hezkuntza mailetan, gizartean, kale-bizitzan, aisialdian, lan-munduan, hedabideetan eta jendarteko harremanetan. Baina jarraipenaren katea, neurri batean bada ere, batxilerrean eta lanbide heziketan bertan hasten da eteten. Derrigorrezko eskolaldian euskalduntakoa, zenbait kasutan, batxilerrean edo lanbide heziketan hasten da ez-euskalduntzen.

Ezagutzaren eta erabileraren hazkundearen arteko diferentzia ulertzeko hainbat arrazoi aipatu behar dira. Gaur egun, aurreko garaietan ez bezala, pertsona elebidun gazteen artean, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara izan ez dutenak; beste era batera esanda, jatorrizko hizkuntza, hizkuntza naturala gaztelania duten gazte elebidunak gero eta gehiago dira. Bestalde, gaur egun, aurreko garaietan ez bezala, elebidunen bi heren hirietan edo herri handietan bizi dira, hots, erdaldun elebakar gehienak kontzentratzen diren tokietan eta eguneroko bizitzan euskaraz naturaltasunez jarduteko aukera gutxiago dituzten udalerrietan. Jakina denez, hizkuntza baten erabileran neurri erabakigarrian eragiten duten bi faktore, honako hauek dira: hiztunaren hurbileko dentsitate demo-

linguistikoa, batetik, eta hiztunak hizkuntza horretan komunikatzeko duen gaitasun erlatiboa, bestetik. Kontuan hartzen badugu hiztun hori ez dela elebakarra eta, gainera, kasu askotan bigarrena duela erabili dezan nahi dugun hizkuntza, erraz ohartuko gara faktoreon eragina erabatekoa izaten dela.

Hori da gure errealitatea edo, hobeto esanda, hori ere bada gure errealitatea. Kontuan hartzen badugu gero eta jende gehiagok ikasia eta gero eta gehiagok erabilia izan dadin nahi dugun hizkuntza duela 25 urte gutxi batzuen hizkuntza zela –eta oraindik ere gutxi batzuen hizkuntza izaten jarraitzen duela–, normalea da arazo horiek guztiak edukitzea. Ezinezkoa da gure kasuan euskararen gizarte-hazkundera era horretako arazorik gabe gertatzea. Horregatik ez dugu dramatizatu behar ez ezkorta-sunean erori behar ere, horrek bai baitu hazkunde-krisiarekin zerikusirik. Baina, horrekin batera, bi baieztapen ere egin behar direlakoan gaude: batetik, errealitate hori ezin da dekretuz aldatu, eta, bestetik, errealitatea hori ere badenez, ezinbestekoa zaigu euskararen hazkunde politikarekin jarraitzea bai erritmoak egokituz, kontziente izanik urte luzeetako eginkizuna dela hori, eta bai eskolatik haratago harreman-sare euskaldunak bultzatuz, euskara ahalik eta modurik naturalenean haz dadin.

**H**iztunok euskara erabiltzeko borondatea eta aukerak behar ditugu.

Beste modu batean esanda: itxuraz euskararen aldekoa dirudien neurri “sustatzaile” oro ez da berez eta nahitaez euskararen aldeko, euskararen garapenerako eta luzarora euskararen erabilera indartzeko kaltegarri ere gerta daiteke, ustekabeen. “Egiten den guztia ere gutxi da, guztiaren beharrean dago euskara” esan eta bere alde edozer egitea ez da bide segurua euskararentzako. Orogen gainetik, hiztunak eta era eta neurri ezberdinetako atxikimenduak irabazi behar ditu etengabe euskarak. Hori lortzeko balio ez duten neurriak, edo zenbait herritar euskaratik uxatzen dituzten jarduerak, borondaterik onenez bultzatuak izan arren, ez dira euskararentzat

onuragarri. Horretan, ororen gainera pragmatikoa izan behar du hizkuntza politikak, hots, euskararen erabilera egiazki indartzeko eta areagotzeko balio duten neurriak bultzatu behar dira.

Euskararen etorkizuna bermatzeko bidean, seguruena, hazkundera ahalik eta modurik naturalenean gertatzea dela uste dugu. Azken batean, pertsona gehienek baliatzen dugu, gure emozioak eta sentimenduak komunikatzerakoan, modu naturalean irteten zaigun hizkuntza, adierazkortasun eta freskotasun handienaz erabiltzen

**Euskararen hazkundera ahalik eta modurik naturalenean garatu behar da.**

dugun hizkuntza. Horiek horrela, esparru formalean ez ezik funtzio ez-formalean ere erabiltzea da hizkuntza barneratzeko eta elikatzeko modua. Erabileran baitatza adierazkortasuna, sentimenduak, emozioak eta naturaltasuna bera, ikuspegi

psikoneurolinguistikotik behintzat, garunaren, pentsamenduaren eta hizkuntzaren eremuetan. Erabilerak naturaltzen du hizkuntza, ez maitasunak, ez nahi izateak, ez jatortasunak, ez jatorrizko hizkuntzak.

Ez doaz bide horretatik gure artean sumatzen diren hainbat fenomeno. Esate baterako, ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleentzako askok ikasgelatik jolastokira pasatzen direnean, euskara osorik edo partez alboratu eta gaztelaniaz egiten dute jolas. Duela 25 urte gutxi ziren, oso gutxi, ikasketak euskaraz egiten zituztenak; orduan, ordea, euskal hiztun izanik ikasketak gaztelaniaz egiten zituzten askok ikasgelatik jolastokira pasatzen zirenean gaztelania utzi eta euskaraz egiten zuten jolas. Antzeko zerbait adierazten du gaur egun Unibertsitatean gertatzen denak: 2007ko udan %52ak euskara aukeratu zuen sarrera-probak egiteko hizkuntzatzat, eta lehen

**Euskararen auzia ez da euskal hiztunen arazoa bakarrik, ezta ideologia jakin batekoena soilik.**

aldiz matrikulatu direnen %45ak ikasketak euskaraz egitea eskatu du. Ikasle horietako askok, ordea, gaztelania dute ikasgelaz kanpoko euren arteko harreman-hizkuntza.

Aurrerago jarraitu baino lehen, uste dugu gauza bat esan behar dela. Gorago esan dugunez, euskarak hiztunak eta erabilera-eremuak behar ditu, eta, euskararen jabe izanik, gaur oraindik euskaratik urrun dauden herritarrek ere jakin behar dute euskararen auzia ez dela euskal hiztunen arazoa, ez behintzat haiena bakarrik. Jakin behar dute euskararen etorkizuna bermatzea ez dela euskal hiztunei bakarrik dagokien zerbait, gutxiago ideologia edo joera politiko jakin batzuetakoei soilik. Jakin behar dute guztiena den ondare horren etorkizuna guztiek zerbait —eta gero eta gehiago— egiten duten neurrian baino ez dela bermatuko. Jakin behar dute, bi hizkuntza ofizial dituen gizarte honetan, zenbat eta berdinkideago izan biak, orduan eta sendoagoa izango dela hizkuntza bien arteko bizikidetza, eta, ondorioz, herritarren artekoa.

Atal hau bukatu aurretik beharrezkoa dugu administrazioari ere begira jartzea. Bistakoa da hor ere euskarak egin duen aurrerakada. Gaur egun, arazoak arazo, administrazioko hizkuntza ere bada euskara, inoiz ez bezala izan ere gainera. Horrek ere badu, ordea, bere ifrentzua.

Administrazioak langileen postuei hizkuntza eskakizunak ezarri dizkie, halako lanpostu horretan lan egin nahi duenak hizkuntzaren ezagutza izan dezan, euskal hiztunen eskubideak hobeki bermatuko direlakoan horrela. Politika horrek desadostasunak sortu ditu zenbaitetan, batez ere herritarraren hizkuntza-eskubidearen babesak bidean erdiz erdi jo duenean langileak lehendik irabazia zuen lan eskubidea. Egia da, gero, praktikan, salbuespen asko egin direla, adina dela eta, lanpostu mota dela eta, eta abar. Eta egia da, nahiz jendea honetaz konturatzen ez den,

**Bi hizkuntza ofizial dituen gizarte honetan, zenbat eta berdinkideago izan biak, orduan eta sendoagoa izango da hizkuntza bien arteko bizikidetza, eta, ondorioz, herritarren artekoa.**

**Administrazioko hizkuntza izatea lortu du euskarak, baina asko egiteko dago oraindik: arazoak detektatu eta konpondu behar dira.**

inork ere ez duela bere lanpostua galdu arrazoi horrengatik. Bestetik da, eta hori ere hala gertatu da, lanpostua bereganatzeko lehia aurrea hartu diola askotan euskaraz mintzatzeko gai dela frogatu izan duenak. Baina ez da batere egokia gauzak nahasi eta denak zaku berean sartzea, *totum revolutum* bat eginez. Arazoak non dauden, hori da azpimarratu behar dena.

Bai 1982ko Euskararen Legeak bai 1986an lege horri buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiak, eta bai ondorengo lege-garapenak ere argi ezartzen dute herri-administrazioetan lana eus-

**A**ministrazioak herritarren hizkuntza-eskubidea bermatu behar du eta euskararen erabilera bultzatu.

karaz ere egiteak erabateko babes legala duela. Epai eta legeria horrek adierazten dute, halaber, kontuan hartu behar dela nahitaez euskararen ofizialtasuna bermatzearen ondorioz administrazioiko lanpostuetz jabetzeko edo berorietan jarduteko

euskara gaitasuna errekerimendu gisa batzuetan eta merezimendu lez gainerakoetan. Hori guztia, jakina, tokian tokiko errealitate sozio-linguistikoa kontuan hartuz eta proportzionaltasun irizpideak aplikatuz egin behar da. Horrek guztiak aurrerapauso ugarietarako bidea ireki du, bidea gorabeheratsua izan bada ere.

Nolanahi ere, aurrerapausoak aurrerapauso, esan beharra dago, gaur oraindik hainbat direla herri-administrazioak herritarrari inolako deserosotasunik eragin gabe modurik naturalenean euskaraz artatzeko zailtasunak eta ezintasunak dituztenak. Gainera, gaur egun, oraindik ere administrazio asko dira euskara ere, gaztelaniaren pare, pixkanaka administrazioetako lan-hizkuntza izan dadin neurririk hartu edo plangintzarik egin ez dutenak. Beraz, asko da egiteke geratzen dena herri-administrazioetan ere euskararen erabilera normalizatzeko eta gehitzeko.

Esan beharra dago, halaber, administrazioan euskara gaitasunaren exigentzia eta merezimendu gisako balorazioa ondorengo bi elementuokin hertsiki loturik egon beharko lukeela, baina askotan –gehiegitan– ez dela horrela gertatzen: herritarren hizkuntza-



-eskubidea bermatzearekin, batetik, eta euskararen erabilera bultzatzearekin, bestetik. Izan ere, euskara gaitasuna eta erabilera uztarri berean lotuta ez badoaz, desegokitasunak sortzen baitira. Euskara-gaitasun tituludunen eta euskararen erabileraren artean ez dago proportzio egokirik, eta esango genuke gehiegi lotu dela euskara gaitasun-egiaztagiria edo hizkuntza perfila lortzearekin, eta gutxi, oso gutxi, lanean erabiltzearekin. Bistan da hori bakarrik eginda edo nagusiki horrela jardunez, euskarak aldeko gutxi irabazten duela herri-langileen artean, eta, aldiz, zenbait langile euskartik uxatzeko arriskua nabarmena dela.

Hortaz, euskara gaitasunaren eskaera (errekerimendua de-nean, bereziki) zuzenean lotu behar litzateke lanpostuan euskara erabiltzearekin. Ondorioz, lanpostuetan euskara erabiltzeko aukerak eta beharrak (egun dituztenak eta etorkizun hurbilean izan ditzaketenak) faktore erabakigarria izan beharko lirateke euskara-gaitasunaren eskaera zehazterakoan.

Nolanahi ere, administrazioaz egindako gogoeta ezin buka gogora ekarri gabe Estatuaren Administrazio periferikoak urteotan erakutsi duen utzikeria, harena ere bai baita Euskararen Legea betetzeko obligazioa, bertako administrazioena den neurri bereko obligazioa hain zuzen ere. Baina administrazio ugarien artean, justiziako administrazioa aipatu behar da nahitaez, zehatzago esanda epaile, magistratu eta fiskalen kolektiboa, euskararen normalkuntzari bizkar emanda aritu baita eta hala jarraitzen baitu. Arlo horretan, guztia dago egiteke.

Azkenerrako utzi dugu berebiziko garrantzia duen arlo bat, euskararen familia transmisioarena. Urteotan, Euskadiko

**Euskara gaitasuna eta erabilera uztarri berean lotuta ez badoaz, desegokitasunak sortzen dira. Euskara-gaitasun tituludunen eta euskararen erabileraren artean ez dago proportzio egokirik, eta gehiegi lotu da euskara gaitasun-egiaztagiria edo hizkuntza perfila lortzearekin, eta gutxi, oso gutxi, lanean erabiltzearekin.**

**Aipatu beharra dago Estatuaren administrazio periferikoaren utzikeria, batez ere justiziarena: berea ere bada Euskararen Legea betetzeko obligazioa.**

Autonomia Erkidegoan euskararen bilakaera prozesuan izan dugun aurrerapauso sendo eta garrantzitsuenetakoa familia transmisioari dagokiona da. Urteak eman ditugu

**U**meei euskara etxean lehen urteetan irakatsi arren, eskolan euskara irakatsi arren, askok eta askok gero etxean ohikotasunez erabiltzen duten hizkuntza gaztelania izaten da. Etxean erabili ezean, nahiz eta seme-alabak euskaraz ikastera bidali, zaila da horrela euskararen erabilera natural eta bizirik zabaltzea.

belaunez belauneko euskararen familia transmisioa bermatu gabe, galerak galeraren ondoan. Nafarroan oraindik ere ez dago bermatua, eta Iparraldean etengabea da galera. EAEn dagoeneko eten da belaunez belauneko familia transmisioan gertatzen zen etendura. Horrek besteak beste esan nahi du euskararekiko aitormen sozial handia dagoela gure gizartean, beharrezkoa ez dena edo estimatzen ez dena izan ohi baita erraz galtzen

uzten dena, eta, aldiz, estimatzen dena gordetzen saiatzen baikara beti gizakiok. Guraso euskaldunek bere egin dute, beraz, euskara ondorengoei transmititzearen ardura. Horrek ere, ordea, badu bere ifrentzua. Umeei euskara etxean lehen urteetan irakatsi arren, eskolan euskara irakatsi arren, askok eta askok gero etxean ohikotasunez erabiltzen duten hizkuntza gaztelania izaten da. Etxean erabili ezean, nahiz eta seme-alabak euskaraz ikastera bidali, zaila da horrela euskararen erabilera natural eta bizirik zabaltzea.

**D**itugun mugak:

- Euskararen beraren errealitatea.
- Euskarak gizartean duen pisua.
- Euskal gizarte osoaren borondate eta ahalmena.

Honaino, bada, kezka-iturri diren gorabeherei buruzkoak. Kezka-iturri horiek, ordea, ezin gaitzakete inondik ere eraman etorkizunarekiko ikuspuntu ezkorra edukitzera. Izan ere, 25 urteotako ibilbideak erakutsi digu euskal gizartea gai dela euskara garatzeko, gizarte-bizitzan gero eta hiztun gehiago eta erabilera-esparru gehiago irabazteko. Etorkizunari itxaropen-

tsu eta ilusioz begiratzera garamatzate, beraz, iraganak eta orainak. Kontua da etorkizuna irabaztea edo galtzea hemendik aurrera

egiten dugunaren esku dagoela, eta horretarako garrantzitsua da arriskuak ahalik eta ongien identifikatzea, eta, erronkak nahiz lehentasunak zehazterakoan, ondo asmatzea.

Langintza horretan ditugun mugak euskararen beraren errealitateak, euskarak gizartean duen pisuak, euskal gizartearen beraren borondate eta ahalmenak ezartzen dizkigunak dira. Horregatik da bereziki inportantea, etorkizuneko hizkuntza politika diseinatzerakoan, boluntarismoa alde batera uztea. Militantzia beharrezkoa dugu, baina boluntarismoa ezin da izan hizkuntza politikaren oinarri, hizkuntza politika kontuetan ere ezin baita egin nahi dugun guztia –edo batzuek nahiko genukeen edo luketena–. Ezin esan beti boluntarismotik guztiz salbu egon garenik, baina etorkizunari begira beharrezkoa dugu errealitatearen mugak eta errealitateak bere barnean dituen arau sozial idatzi gabeak ahazten dituen boluntarismoari ateak ixtea.

Atal oso hau pasarte bakar batean laburbiltzera jo beharko bagenu, esango genuke oso garrantzitsuak direla hizkuntza-eskubideak, eta egunerokoan han eta hemen egiazki errespetatu daitezkeen hartu beharreko neurriak hartu behar direla. Baina eskubideen izenean harturiko edozein neurri ez da berez onargarri, baldin eta euskararen erabilera sendotzeko eta areagotzeko balio ez badu. Euskararen erabilera indartzea eta etengabe gehitzea izan behar du hizkuntza politikaren oinarri nagusia, herritar gehienek atxikimendua eta adostasuna makulutzat hartuta. Horrek eskatzen du herritarrek euskara erabiltzeko gaitasuna izatea, euskara erabiltzeko aukerak izatea eta euskara erabiltzeko borondatea izatea, esan nahi baita, herritarrek euskara borondatez erabiltzea, gero eta gehiago.

### **E**zinbesteko hiru baldintza etorkizunari begira:

- **Euskara erabiltzeko gaitasuna izatea.**
- **Euskara erabiltzeko aukerak izatea.**
- **Euskara erabiltzeko borondatea izatea.**

### **E**uskararen erabilera indartzea eta etengabe gehitzea izan behar du hizkuntza politikaren oinarri nagusia, herritar gehienek atxikimendua eta adostasuna makulutzat hartuta.



### 3. XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK ETA ERRONKAK

LEGEAK, DEKRETUAK, LAGUNTZAK, aitormenak, eta abar denak dira lagungarri ahuldutako hizkuntza bat biziberritzeko, alabaina herritarrek xede hori lortzeko borondate irmoa eta atxikimendua agertzea da erabakigarriena, hori gabe alferrekoak baitira gainerako guzti-guztiak. Izan ere, une bateko hobekuntza gorabehera, gainbehera areagotzea ez besterik gertatuko baita. Hori horrela, herritar gehien borondatera eta gogora egokitu behar da arian-arian gorpuzten den hizkuntza politika. Horregatik, herritarren jarrerak-eta ezagutzeaz gain, politikan eta gizartean hizkuntza kontuetan aldiro adostasuna gaurkotzea eta berritzea ere ezinbestekoa da.

Euskal gizarteak euskara indartzeko konpromisoa askotan adierazi du eta borondate hori asebetetzeko moduko hizkuntza politika egin behar da, gure ustez. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu hizkuntza politika batek, hemen zein nonahi, lehenik eta behin, helburuen artean bat duela le-

hena eta oinarrizkoena: erakundeek unean uneko hizkuntza errealitatera egokitu behar dituzte nahitaez hizkuntza politikaren gainean hartzen dituzten erabakiak. Horrez gain, hizkuntza politikak izan dezake –eta gure ustez izan behar du– hizkuntza indartzea ere xede. Hizkuntza indartzeko hartu beharreko neurriak, ordea, beste maila batean kokatzen dira. Halako politika batek, berriz, adostasun sendo eta eztabaidaezina behar du gizartean, kualitatiboa, helburuak

**H**erritarren jarrerak-eta ezagutzeaz gain, politikan eta gizartean hizkuntza kontuetan aldiro adostasuna gaurkotzea eta berritzea ezinbestekoa da.

eta mugak ongi zehaztuko dituen, politika horrek eskatzen dituen neurriek eragin berezia izan baitezakete herritarren eskubideen eremuan.

Aurrekoak abiapuntu harturik, ahuldutako hizkuntza bat indarberritzeko asmoz, gizarte moderno batean egituratzen den hizkuntza politika adar askotakoa izan daiteke, eta ez da printzipio orokor horietatik nahitaez hizkuntza politika mota bakarra sortzen. Printzipioetan bat etorririk ere, horrek ez du esan nahi hizkuntza politika batean bakarrik gauzatzen direla haiek ezinbestean, bide bat baino gehiago izango baitu politika arduradunak aukeran politika zehatzak ezarri nahi dituenen.

Gure Erkidegoan garatu den hizkuntza politikak oinarri eta printzipio jakin batzuk ditu, azaroaren 24ko 10/1982 Legean jasotakoak, alegia, eta bertan topa ditzakegu, ordutik hona, hogeita bost urte luze hauetan garabidean jarri den hizkuntza politikak kontuan izan dituen helburuak eta mugak.

Gizarte-baldintzak aldatzen ari direlarik, bihar-etziko hizkuntza politikak beste ezaugarri batzuk bildu beharko ditu, akaso. Alabaina, bide horretan urratsak egin aurretik, komenigarria da, gure ustez, Euskararen Legeak ezarri zituen habe haiei buruz gogoeta egitea, hausnarketa sakontzea eta zenbait gaizkiulertu argitzea. Bide nabar, elkarrizketaren bidez aurreratu beharko da zein irizpide, oinarri eta printzipio diratekeen gaur-biharretako adostasunerako baliagarri.

Gorago esan bezala, beraz, ondorengo lerroetan aurkituko dena ez da hizkuntza politika jakin bat, ez da arloz arlo eta epealdi jakin baterako neurri eta ekintza zehatzak jasotzen dituen hizkuntza-plan bat, horrelakorik definitzea eta diseinatzea eta garabidean jartzeari ardura eta eskumen hori duten herri-erakundeei baitagokie beti ere. Jarraian proposatzen direnak hizkuntza politika baten oinarriak dira, euskararentzako osasuntsuak eta eraginkorrak, eta euskal herritarrentzako euren bizikidetasuna sendotzeko baliosak.

## Hizkuntzaren erabilera, haren osasun-egoeraren adierazgarri

Euskara hizkuntza bizia, adierazkortasun handikoa, jarduera formaletan ez ezik jarduera ez-formaletan ere naturaltasunez eta atseginenez gero eta jende gehiagok erabiliko duen hizkuntza noranahikoa izatea da helburuetan helburu. Jakina da ez dugula museorako objektutzat nahi, baina inola ere ez genuke nahi ikasgeletako lau hornei jositako hizkuntza izatea; biziko bada, kalean hartu dezake eta hartu behar du arnasa euskarak; zerbitzu publikoetan bai, ez da horretaz zalantzarik, baina oso bereziki lagunartean, familiako harremanetan, Interneten, lan munduan, aisialdian eta hedabideetan ikusi nahi dugu indartsu, pixkanaka, baina beti zerbait gehiago, normalizaziorantz urrats sendorik egingo bada.

Erabilera areagotzea da, beraz, xedea, erabileran baitago etorkizunaren giltzarria. Horretarako, euskaradunak baino euskal hiztunak behar dira, eta hiztun potentzialak hiztun erreal bihurtzea ere garrantzitsua litzateke. Behar-beharrezkoa

da, gero eta jende gehiagorentzat, euskara arazo-iturri ez baizik-eta hizkuntza erakargarri, atsegin eta naturala izatea. Ezin da inor behartu euskararekiko leial izatera, euskarari atxikimendua edukitzera, baina jakin behar dugu leialtasuna eta atxikimendua direla euskarak nahitaez behar dituen jarrerak, hizkuntza bizia eta gero eta erabiliagoa izango bada; eta herritarrei, euskal hiztun direnei nahiz ez direnei, jakinarazi egin behar zaie hori.

**Euskarak kalean hartu behar du arnasa, eguneroko bizitzan. Erabileran dago etorkizunaren giltzarria.**

## Xedek: gizartean ezberdintasunak orekatzea, gizartearen kohesioa indartzea eta bizikidetzaren areagotzeko urratsak bizkortzea

Nekez aurkitu dezake euskal gizarteak bere buruari jartzeko helburu egokiagorik ezberdintasun gutxiagoko, bizikidetasun orekatuago eta sendoagoko jendartea lortzea bera baino, hori baita gero eta

libreago izateko bidea. Helburu horien barnean kokatzen dugu guk euskararen auzia ere. Euskararen auzia ez da, gure iritzian, euska-

**Euskararen auzia ez da euskararen arazoa, gure hizkuntzen arteko bizikidetasunaren arazoa baizik.**

raren arazoa, gure hizkuntzen arteko bizikidetasunaren arazoa baizik. Euskararen auzia ez da, beraz, euskarak kezkatzen gaituenon edo euskaltzale garenon kontua bakarrik, euskal herritar guztien, kulture politiko batzuetako zein besteetako herritar guztien, euskaltzaleen eta euskaltzale ez direnen arteko bizikidetasunean eragiten baitu.

Izan ere, den-denok jarri beharko genizkioke geure buruari honako helburu hauek: hizkuntzen arteko ezberdintasun sozialak pixkanaka-pixkanaka baztertzea, hizkuntzak erabiltzeko aukera berdintasunerantz bidea egitea eta egiazko hizkuntza-askatasuna erakitzea. Horrela, bada, etorkizuneko hizkuntza politikak, edozein delarik ere, bere oinarri nagusien artean honako bi zutabe hauek bederen izan behar lituzke: batetik, norbanako bakoitzaren hizkuntza-aukera erabat errespetatzea; bestetik, hizkuntza –zeinahi hizkuntza– baliatzeako askotariko erabilera-aukerak bermatzea; eta azken zutabe hau aipatuta, eta euskararen erabilera bultzatzea izanik goiburua, garbi eduki behar da hizkuntzarik ahulena, ezberdintasunean dagoena, jarduteko aukera urrienak dituenak, euskara, erabiltzeko ditugun aukerak indartu egin behar direla eta berriak sortu.

**Gizarteko desberdintasun linguistikoak orekatzea: elebakartasuna gaindituz, eleaniztasuna bultzatuz.**

Hizkuntzen artean ezberdintasun sozial gutxiago eta berdintasun handiagoa daukagun neurrian, bi hizkuntzen erabilera-aukeren artean berdintasun handiagoa lortzen dugun neurrian, gutariko inork ez dio berak aukeraturiko hizkuntza erabiltzeari uko egin beharrik izango. Gaur

egun gure gizartean elebidunak kasu askotan uko egin behar izaten dio hizkuntza aukera baliatzeari. Kontu jakina da gaur eta hemen, hainbat esparrutan, euskaraz jardun nahi duenak dituela



zailtasunak aukeraturiko hizkuntzan, besteak beste, euskara euskal gizartean gaur oraindik gutxiengo baten hizkuntza delako, urteetan eta mendeetan gaztelania izan delako esparru publikoko eta erabilera landuetako hizkuntza, eta horrelako errealitate bat aldatzea ez delako borondate kontua bakarrik. Hizkuntzen aukera-berdintasuna areago-tzea izan behar dugu testuinguru honetan helburu, herritarrei aitorturiko hizkuntza-  
-eskubideak pixkanaka inolako arazorik edo aparteko ahaleginik gabe baliatuak izan daitezen. Izan ere, egiazko hizkuntza-  
-aukera handitzeak hizkuntza-askatasuna handitzea ekarriko luke berarekin, eta horrekin guztion bizikidetza aterako litzateke sendoturik, eta guztiok irabazle.

**E**giazko hizkuntza-aukera handitzeak hizkuntza-askatasuna handitzea ekarriko luke berarekin, eta horrekin guztion bizikidetza aterako litzateke sendoturik, eta guztiok irabazle.

### **Abiaburu: elebakartasuna gaindituz, eleaniztasuna zaintzea eta sustatzea**

Globalizazioaren munduan gaude, eta badirudi hegemonikoa den guztiak ororen gainetik nagusitu nahi duela modernitatearen eta efikaziaren izenean. Baita hizkuntza kontuetan ere. Ezberdinak gara, hizkuntzak ere ezberdin egiten gaitu, eta ezberdinek osaturiko anizkoiztasunaren aberastasunean sinesten dugu. Eleaniztasuna, beraz, mundu globalizatu honetan, zaindu eta sustatu beharreko balio aberats eta aberasgarria delakoan gaude. Ez ditugu ezberdinak berdindu nahi, aukeretan nahi dugu berdintasuna. Horrek garamatza euskara –erabilera-aukera gutxien dituen– indartzera; baina ez ezeren kontra, ez hemengoa den eta gu geu aberasten gaituen beste hizkuntzaren kontra –gaztelaniaren kontra alegia–, haren ondoan baizik, baina, hori bai, gero eta bien arteko aukera-berdintasun handiagoan.

Gure gizartearen eleaniztasunaren lehen adierazpen nagusia elebitasuna da, bistakoa denez. Euskara eta gaztelania

**G**izartearen kohesioa indartzea: egiazki elebiduna izango den euskal gizartea eraiki nahi da.

biak ditugu hemengo hizkuntzak. Eta esandako guztiaren ildotik, egiazki elebiduna izango den euskal gizartea eraikitzeko pausoak

**Ezinezkoa da euskal gizarte elebakarra, eta gainera ez da hori euskal gizartearen gogoia. Elebakartasunetik aberastasun gutxi eta pobrezia ugari besterik ez genuke jasoko.**

ematea izan behar du hizkuntza politikak helburu. Esaten da ez dela munduan benetan elebiduna den gizarterik, argudiatzen da elebitasun simetrikoa ez dela inon gertatzen eta hori hemen ere ezinezkoa dela; azken batean, bi eratako mezuak plazaratu ohi dira elebitasunari argi eta garbi “ez” edo “bai, baina ez” esaten dio-

tenak: euskara jendarteko harremanetarako hizkuntza bakarra izango duen Euskal Herria proposatzen dute batzuek, eta euskara beti eta betiko gaztelania hegemonikoa baino ahulagoa eta maila apalagokoa izango duen Euskal Herria iradokitzen dute beste batzuek.

Ezinezkoa da euskal gizarte elebakarra, eta gainera ez da hori euskal gizartearen gogoia. Elebakartasunetik aberastasun gutxi eta pobrezia ugari besterik ez genuke jasoko. Ez dugu, beraz, gogoko.

Elebitasun simetrikoari dagokionez, ez dakigu benetan eraiki ahalko dugun eta gaurko belaunaldiok ezagutu ahal izango dugun halako elebitasunik euskal gizartean. Baina hizkuntza-askatasunaren eta hizkuntza-erabilera aukera berdintasunaren alde, euskara eta gaztelaniaren arteko berdintasun sozialaren alde modu positiboan eta aktiboan, zuhertasunez eta malgutasunez, baina etengabe, lan egingo badugu, nahitaezkoa da elebitasun orekatua eta aukera-berdintzailea benetan posible balitz bezala jardutea, hori helburu duen hizkuntza politika malgu eta errealista egitea. Bestela galga jarriko genioke guztion bultzada behar duen prozesuari.

Helburuak argitu ditugularik, hitz egin dezagun orain helburu horietarantz eramango gintuzkeen bideari buruz. Bide hori egiterakoan, hainbat abiapuntu eta kontu onartu beharko genituzke, eta oinarritzat hartu.

## Beharrezkoa da errealitatea kontuan hartzea eta gehiegizko boluntarismoari atea ixtea ere

Gizarteak euskara eskura izatea eskatzen du, baita euskal hiztun ez direnek ere, eta eskola da borondate horren adibiderik behinena. Euskara zabaltzeko nahia euskara indartzeko onuragarria izan badaiteke ere, oso kontuan hartu behar dugu euskal hiztun-erkidegoak eskatutako guztiari ezin diola aurre egin. Ikuspegi horretan sakonduz, euskal hiztun-erkidegoa indartu nahi badugu, ezin dugu neurririk gabe bultzatu euskara hedatzeko nahia (kuantitatiboa), besteak beste, halako politika batek hiztunen ahulezia kualitatiboak areagotuko lituzkeelako (ereduari, zuzentasunari eta kalitateari dagokienez) eta euskarak etorkizunaren aurrean dituen arriskuak bistaratu. Testuinguru horretan euskara hedatzearen aldeko politika neurtu egin behar dugu, hiztun-elkartea bera ahuldu nahi ez badugu.

**H**iritarren borondatea da, eta ez boluntarismoa, hizkuntza politikaren oinarri: horretarako, garenaren neurria hartu behar dugu aintzat.

Hizkuntza indarberritzeko kontuetan, “nahi izatea da ahal izatea” printzipioak ez digu balio, ez dira ezta ere behar bestekoak –beharrezkoak eta lagungarriak gertatu arren– aginduak eta arauak. Urteak dira honetaz ere maisuki idatzi zuela Koldo Mitxelenak:

Agian, gure artean hain errotua dagoen boluntarismoaren arriskua salatu beharrean gara, nahikunde hutsa helburuetara iristeko nahikoa bailitzan. Ez ditut ukatuko utopiaren ondorio miresgarriak, batzuk begien aurrean baititut. Nahiago nuke, ordea, badaezpada ere, ezer egingo bada beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak, lagun eta aitzindari, kalkulua izango balute, eginahalean zehaztuz zeren bila gabiltzan, zein urratsetan lortuko dugun, eta nolako bitartekoak ditugun eskumenean orain eta etorkizunean.

Ezin fida daiteke –zenbaitek, areago erosokeriaz beste ezertaz baino, egiten duen bezala– dekretuaren ondorio mires-

garrietan, ezta ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitopenetan ere. Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Beste nonbait esan eta idatzi dudan bezala, diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitzela ghettoaren infernua eror. Hizkuntza integrazioa beste ezein bezain beharrezkoa dugu.

**Euskara denona da eta denontzat, lerrokatze politiko eta ideologikoen gainetik. Euskararen etorkizuna ere denona da eta denontzat.**

Boluntarismoak ez luke, beraz, inolako hizkuntza politikaren oinarri izan behar, horretatik euskarak ez bailuke deus irabaziko. Euskara indarberritzeko konfuetan ere, boluntarismoaren aurrean, garenaren neurria oso aintzakotzat hartu be-

harko genuke. Izan ere, hainbat faktorek behartzen gaituzte euskal hiztunen euskarazko jarduna sendotzen laguntzera, hona hemen, besteak beste, faktore horietako batzuk: euskal hiztunak oraindik ere gutxiengoa dira, hiztun horiek gainera elebakarrak ez baizik-eta gutxienez elebidunak dira, belaunaldien artean hizkuntza-diferentzia nabarmenak daude, euskara urte askoan ez da izan erabilera publiko eta jasoetako hizkuntza, herritarrek hizkuntzaren parean eta gainetik beste balio pisuzko batzuk jartzen ditu. Halaber, nahi duguna da, euskaratik urrun dauden herritarrak pixkanaka euskarara erakartzen saiatuz, euskara aukera berrietarako leiho atsegin, aberats eta erakargarri moduan azaltzea.

Euskara ahula da eta ez du, gaur, oraindik, indarririk gaztelaniaren parean lehian aritzeko. Behartuta gaude, beraz, etorkizun are arrakastatsuagoa izan dezan, zuhurtasun handiz jokatzera. Beldurrik gabe onartu behar dugu gure gizarte hau ez dela benetan elebiduna izango beste 25 urtean, baina urte asko baino lehen lortu behar dugu elebidunak gutxiengoa izateari uztea. Beldurrik gabe onartu behar dugu, euskararen interesetik begiratuta ez zaigula ko-

meni hizkuntza politikaren diskurtsoa eskubideen inguruan bakarrik ardatzea, eta “eskubidea dugulako eta horregatik bakarrik” gaztelaniaz dagoen guztia euskaraz ere jartzen saiatzea.

Horrela, bada, beldurrik gabe onartu beharko genuke etorkizuneko gizartean ohikoa izango dela hizkuntza bakoitzak bere erabilera-eremuak edukitzea, batzuetan bat izango da nagusi eta beste batzuetan bestea, lurralde batetik bestera egoera diferenteak gertatzea, eta abar. Hobe da era horretako testuinguru ireki eta nahasi baterako euskara indartzeko estrategiak bultzatzea, guztia berdintzearen boluntarismoan erortzea eta indarrak ahi-tzea baino. Inguruabar horretan sakonduz, hizkuntza-erkidegoak kontuan, berariazko trataera diseinatzea eta garatzea garrantzi handikoa da, besteak beste, euskaraz nagusiki jarduten duten eremuetan-eta haren ezagutza eta erabilera indartuz, trinkotuz eta berariaz lehenetsiz.

Boluntarismotik ihes egiteak hizkuntza politikaren jardun-eremu osoa aintzat hartzea ere eskatzen du, eta horretarako zehar lerroaren trataera zurkaiztu behar da. Ezin da denean aldi berean eragin, lehentasunak finkatu behar dira eta, horretarako, unean uneko eta tokian tokiko egoerak aztertu behar dira, eman beharreko pausoak identifikatuz, planifikatuz, herritarren aldeotasuna jorratuz, bidenabar.

Halaber, boluntarismotik ihes egiteko, ezinbestekoa da, besteak beste, arian-arian abian den hizkuntza politika ebaluatzea ere; ondo egindakoak indartzeko eta areagotzeko; gaizki egindakoak zuzentzeko, hiztunen behar berriak antzemateko eta erantzuten ahalegintzeko; usteetatik urruntzeko, finean. Ebaluatzen ez dena ez dagoelako hobetzerik, hiztunen eta hiztun-elkartearen behar zahar eta berrietara egokitzerik.

**Euskaratik urrun dauden herritarrak pixkanaka euskarara erakartzen saiatuz, euskara aukera berrietarako leiho atsegin, aberats eta erakargarri moduan azaltzea nahi dugu.**

## Euskara denona eta denontzat

Ateak itxi behar zaizkio ildo politiko eta ideologiko jakinekin euskara lerrokatzeari. Euskarari ez dio batere mesederik egiten nazionalismoaren mundu zabaletik inork bere esparrurantz modu esklusiboan euskarari tiraka jarduteak, ezta inork euskara nazionalismoaren mundura jaurtitzeak ere, gutxiago oraindik indarkeriarekin lotzen saiatzeak. Kontu honetan alde guztietatik beharko litzateke jarre-  
ra autokritikoa, abertzaletasunaren mundutik zenbaitetan zenbait-  
tek euskara jabetza esklusiboan hartzen saiatu izanak ere ez baitu zurriz euskara abertzaletasunaren esku utzi eta gure hizkuntzari bizkar emanda geratu izan direnen jokabidea.

Euskararen geroa ez da euskaltzaleen –eta are gutxiago, abertzaleen– kontua bakarrik, euskara guztion ondarea denez, guztiok, baita euskaltzale sentitzen ez direnek ere, hartu beharko genuke eginkizun propiozat gizartean eta gizabanakoen artean euskarari arnasa ematea, erabilera handituz eta elebakartasuna gaindituz. Ez baitago gizarte elebidunik, edozein neurritako gizarte elebidunik, herritar elebidunik gabe, neurri diferenteetan elebidun diren herritarrik gabe.

## Hizkuntza propioari aitortza zor zaio

Hizkuntza bakar baten aldeko aldarria egin nahi dela ez du esan nahi, ahulduta dagoen hizkuntza, gainerakoekin batera, irauteko eta osorik garatzeko baldintzak sortu behar direla baizik.

Horrek ez gaitu eraman behar, hala ere, elebakartasuna aldarrikatzera. Oker handia litzateke hori, hain zuzen ere, hori bailitzate-  
ke hizkuntzak elkarren kontrako izango balira bezala ikustea. Gure ustez, hizkuntzak aberastasunaren seinale dira, eta hemen beti izan ditugu, maila batean edo bestean, bi hizkuntza.

Aurrerantzean, aldiz, gehiago izango ditugu. Etorrinek, he-  
dabideek, arian-arian sortzen diren komunikazio-beharrak, eta abar-  
rek beste ezaugarri batzuk ekarri dizkigute, eta horien arabera mol-

datuko da gure gizartea, hizkuntza kontuetan baita ere. Gizartearen zeregina da, honenbestez, hizkuntzak aberastasun bezala ikustea, eta aberastasun horren gainean ahalik eta gizarterik baketsuena eraikitzen saiatzea. Aberastasun hori bultzatzeak esan nahi du, besteren artean, baldintzak sortu behar direla euskara ere erdararen pare, ahal dela, gara dadin, eta, gaztelaniak bezala, erabilia izateko egiazko aukerak izan ditzan.

Honen guztiaren harira, hizkuntza garatzeko baliabideak eta erabilera gauzatzeko esparruak zaindu, sustatu eta sortuko dituen hizkuntza politika beharko genuke.

### **Demokraziaren printzipioetan oinarritu behar da hizkuntza politika**

Gatazka edota bazterreko egoerak gainditzeko, askotarikoen arteko bizikidetzeta giroa areagotzeko, gizarteak berdinkideago izan ahal izateko, gizarte demokratiko baten ezau-garrietako bat da egoerarik zailenean daudenak laguntzea (nahiz pertsonak nahiz hizkuntzak).

**H**izkuntza politikak balore demokratikoak ditu oinarri, eta ez bortxa eta inposizioa.

Demokrazia hitzak esanahi bat baino gehiago izan badezake ere, hemen sistema demokratikoez ari gara, ez beste zerbaitetaz. Hau da, sistema demokratikoak dituzten herrialdeetan demokrazia ulertzen denaz: botereen banaketan eta parlamentuaren indarrean oinarritzen den demokrazia. Azken batean, biztanle gehienek ordezkariek hartzen dituzten erabakietan funtsatzen den demokrazia.

Eragingarria izan nahi duen hizkuntza politika bat inertiak-eta astintzeko deserosoa izan behar du, ezinbestean, bestela ez bailitzateke hizkuntza politika egin beharrik ere. Hori bizitzaren arlo guztietan gertatzen da, ez hizkuntzaren kontuan bakarrik. Politika arduradunek erabaki bat hartuz gero, erabaki horrek beti izango ditu alde onak nahiz, beste batzuen ustez, hain onak ez diren beste alde batzuk ere. Eta eskubide bat onartzen denean, eskubide horrek be-

rak berekin dakar hura garantiaz gauzatzeko beharrezko diren neurriak, denen gustukoak izango ez direla. Azken urte hauetan hurbi-

letik ikusi ahal izan da hori emakumeen eskubideak, homosexualenak, eta abar, gauzatzeko hartu izan diren erabakietan.

Hala ere, hori onarturik ere, gure ustez, onartezina litzateke oso, hizkuntza kontuetan, gauzak bortxaz egitea, eta inposizioan oinarritzea, hiztunen eskubidea borondateak bakarrik segurta baitezake, batzuen eta besteen borondateak, hizkuntza horretan mintzo direnen eta delako hiz-

kuntza hori –euskara, gure kasuan– arrotza dutenen borondateak. Hizkuntza politika, zuzen eginez gero, gizartearen kohesio-eragilea izan daiteke. Baina, hala moduz eginez gero, gizartea zartatzea ere ekar dezake.

Edozein modutan ere, hizkuntza politika ez litzateke demokratikoa izango, ezagutzen ez duenari ezagutzeko aukera emango ez balio. Horretarako, ezagutza sustatu beharko litzateke. Horrez gain, hizkuntzen arteko ezberdintasun egoera orekatzeko, hizkuntza politikak zehatza ere izan behar du, hizkuntza errealitatean eragiten duena. Hitz gutxitan esanda: gehiegikeriarik gabea izan behar du hizkuntza politikak, gizartearen kohesio-bilatzailea, baina ezin izan liteke deserosotasunik gabea.

Etorkizunari begira, gaur egungo euskal gizartean zatiketa arriskuak asko gutxitu diren honetan, integrazio-nahiak helburu berriak behar ditu:

- a. Euskaldun jendeak ezin du izan hizkuntza-gutxiengo baten trataera Euskal Herrian –zuzenbide konparatuan kontzeptu horrek duen edukiarekin–, baina ez du, ezta ere, hizkuntza-gutxiengo baten kide batek baino eskubide gutxiago izan behar.

## Hizkuntza politika demokratiko batek:

- Ahulena babestu behar du.
- Ezagutza bermatu behar dio ezagutzen ez duenari.
- Kohesio tresna bihurtu behar ditu hizkuntzak.



- b. Erdal mundua euskal munduari bizkar emanda biziitzea, euskal munduen berri jakin gabe jarraitzea, gizarte garez gero dugun aberastasun bat baztertzea eta alferrik galtzea da. Bizikidetzari minik handiena egiten dioten fenomenoetariko bat da hori, gainera.
- c. Elebitasun (gutxienez) pasiboaren hedapenaren bidez, hedabideen bidez eta zabalkunde-lanaren bidez euskal herritar erdaldunek euskal munduaren jabeakide egin beharra dago, herritar euskaldunok Euskal Herriko erdal munduaz jabetzen garen bezala. Zubigintza beharrezkoa dugu honetan ere, eta guztiok egin beharko dugu zerbait elkar ezagutu eta ulertzearen mesedean, baina ez litzateke inor mindu beharko esango bagenu euskarari eta euskal munduei bizkar emanda bizi direnak dirrela pauso gehixeago eman beharko lituzketenak, euskarara hurbiltzeko erabakia eurei baitagokie.
- d. Azken aldian, bestelako lurraldeetatik datozen pertsonen etorrera indartu delarik, areagotu beharra dago gizarte-kohesioan, aukera berdintasunean, integrazioan (ez-asimilazioan), eta abar areagotzeko egiten ari garen ahalegina, besteak beste, irakaskuntza elebidunerako aukerak ziurtatuz eta metodo egokiak bilatuz, plangintza sistematikoak eginez, harrera-egitasmoak garabidean jarritz eta orokortuz, eta abar.

### **Integrazioaren hainbat helburu:**

- **Euskaldun jendeak ezin du hizkuntza-gutxiengo baten trataera izan Euskal Herrian.**
- **Erdal mundua euskal munduari bizkar emanda biziitzea oztupoa da elkarbizitzarentzat.**
- **Bi munduen elkar ezagutza sustatu behar da.**
- **Integrazioa bilatu behar da, ez asimilazioa, beste lurraldeetatik datozenekin.**

## Norbanakoaren borondatea izan behar du oinarri hizkuntza politikak

Hizkuntza politikak, nolana hikoia ere den politika hori, huts egingo du, ez badu kontuan izaten hizkuntzaren erabilera, azken batean, inork ere ukatu ezin duen hiztunaren borondatezko nahian hartzen duela indarra: euskaraz egin nahi duenari lagundu behar zaio, eta, batzuetan, asko lagundu beharko zaio gainera, baina euskaraz jakinik, beste hizkuntza bat erabili nahi duenari, nahia errespetatu behar zaio.

### Hizkuntza politikaren oinarriak

- Norbanakoaren borondatean oinarritua.
- Progresiboa, malgua eta neurrikoa.
- Integratzalea.
- Egin daitekeenari anbizioz begiratuko diona.
- Kalitatea zainduko duena.
- Tokian tokiko ezaugarri linguistikoak aintzat hartuko dituena.

Borondatea ez da ongi konpontzen bortxarekin. Politikaren ondorioa bada nor edo nor halabeharrez eta ezinbestean hizkuntza bat ikastera eta erabiltzera bultzatzea, zerbaitek huts egiten du. Euskara bultzatu behar da, euskal hiztunek bere hizkuntza erabil dezaten erraztasunak emanez, ez da dudarik horretan, eta erdarak egunero duen eragin handia nolabait ere berdindu behar da beste bide batzuk erabiliz. Honek berdind balio du administrazioaren zereginean edo enpresa pribatuetan, hauek ere bere gain hartu beharko bailukete politika honetan laguntzea.

## Progresiboa, malgua eta neurrikoa izan behar du hizkuntza politikak

Hizkuntza politika malgutasunean eta progresibotasunean oinarritu behar da. Malgua, neurrikoa, eraso gisa sentitzen ez dena, beti ere integratzailea. Egia da hizkuntzen jabeak norbanakoak direla, baina hizkuntzaren erabilera gizartean gertatzen da, hiztunen artean, eta horrek badu eragina, gustatu edo ez, beste pertsona batzuen hizkuntza jokabideetan. Horrek batzuen eta besteen askatasuna

baldintzatzen du, denek aldarrikatzen baitute nahi duten hizkuntza erabiltzeko askatasuna. Nahiz, egiazko askatasuna, puntu honi dagokionez, elebidunak diren hiztunek bakarrik duten, gehienen kasua bestelakoa baita: ezagutzen duten hizkuntza bakarra erabiltzeko ezinbesteko beharra.

Nolanahi dela ere, elebidunen aukerak batzuetan eragina izan dezake elebidunak ez direnen artean, batez ere erabileraren askatasun hori gauzatzeko aurrera eramaten den politikak elebidun ez direnen hizkuntzaz bestelako eskubideekin topo egiten badute. Denok ohartu behar dugu, eta onartu, eskubideak, gutxi batzuk kenduta (bizitzeko eskubidea, adibidez) ez direla modu absolutuan gertatzen, eta, zenbaitetan, eskubide bat gauzatzeak beste eskubide bat baliatzea oztopa dezakeela. Nolanahi ere, hizkuntza politikak ahalik eta gutxien baldintzatu beharko luke herritarren askatasuna. Borondatean oinarritzetik indarrean, edo indarkerian, oinarritzera pasatuz gero gertatuko litzateke hori.

Arlo honetan, hala ere, iritzi kontrajarriak daude. Izan ere, batzuen ustez, hizkuntza politikak askatasunean oinarritua bai, bai, hautatzeko askatasun txikiena duen hizkuntzaren aldekoa izan behar du. Komunikazio-hizkuntza diferenteak daudenean, ukipen egoeran ditugunean hizkuntza nagusia eta gutxitutakoa, nagusia erabiltzea ez litzateke askea, ezartzailea baizik gutxituarenganako.

### **Egin daitekeenaren eta ezin egin denaren artean mugitu behar du hizkuntza politikak, kalitatea zainduz ahal den neurrian**

Kontuan hartu behar da, ezinbestean, ikuspuntu kualitatiboa: hizkuntza politikak ezin die modu berean eragin Laguardiako, Hondarribiko edo Getxoko ikasleen beharrei; ezin ditu zaku berean sartu Goierriko enpresa bat eta Bilboko denda bat, erakunde pribatuak erakarri nahi baditu zeregin komun honetara; ez da gauza bera administrazioko zazpigarren solairuan paketeak pilatzen ari den langile baten kasua, edo egunero telefonoa hartu behar izaten duenare-

na. Mailak daude, errealitatearen alderdi asko, denak diferenteak. Eta ezberdinak diren neurrian, ezberdin tratatu ohi dira eta ezberdin tratatu behar dira.

Bestetik, guztion zeregina da euskararen erabilera aberatsa bultzatzea, eta kalitatea zaintzea, baina beharbada hiztun kopurua haztearen eta belaunaldi berrietara hedatzearen ondorioz hizkuntzak puntu honetan bidesaria ordaindu beharko du. Nolanahi ere, erabilera areagotzen den neurrian eta esparru ugarietara zabaltzen den heinean, espero liteke hizkuntzaren kalitatea hobetu eta hizkera eta esapide eredugarriak azaleratuko direla.

### **Herritarren elebitasuna bultzatuko duen hizkuntza politika. Irakaskuntzaren garrantzia helburu horren bidean**

Euskararen arloan eta gure erkidegoan hogeita bost urte pasatxotan egin den hizkuntza politikaren ildorik eta lorpenik garrantzitsue-na, dudarik gabe, irakaskuntza elebiduna izan da.

1982ko Euskararen Legearen eztabaidan adostasun oso eta betea izan zuen elebitasun pertsonala hedatzeko irakaskuntzaren balioak eta elebitasun osoa irakaskuntza elebidunaren bidez lortu beharrak. Ituna, nolabait esan, elebitasuna hurrengo belau-naldian lortzeko bideak jartzean aurkitu zen. Legean finkatu ziren printzipioak, irakaskuntzari dagokionez, oso ezagunak dira:

- a. Irakaskuntza euskaraz nahiz gaztelaniaz izateko eskubi-de indibiduala.
- b. Beste hizkuntza ofiziala ere ikasi beharra.
- c. Helburu bezala, derrigorrezko eskolaldiaren amaieran ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menderatzea.

Horiek lortzeko, 82ko Euskararen Legeak Eusko Jaurilaritzari agintzen zion hizkuntza-ereduak finka zitzala eta neurri egokiak har zitzala, oro har, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskun-

tzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan zedin. Horiek horrela, azken hamarkadetan, euskarak izan duen hiztun kopuruaren haztea, erabaki horri zor zaio, hein handi batean.

Gurasoek, askotariko arrazoiengatik, ikasi ez zuten hizkuntza haien seme-alabek ikas dezaten urratsak egin dituzte, honakoa izanik azken urteotako bilakaera baikorraren habeetariko bat. Prozesu horrek agerian jarri ditu hiru gauzok uztartzearen eraginkortasuna: gurasoen eskubidea hizkuntza aukeratzeko haien seme-alabak hezi daitezen, eskola-erkidego bakoitzaren hezkuntza-proiektuan jasotako hizkuntza-helburuak, eta ofizialak diren bi hizkuntzetan derrigorrezko eskolaldiaren amaieran lortu beharreko gutxieneko komunikazio-gaitasuna. Ikasleen aukera berdintasuna bermatuz eta gizartearen bizikidetzan eta kohesioan aurrera eginez beti ere.

Gune urbanoetan edota euskarak atzera egin zuen bestelako guneetan bizi diren egungo gazteen komunikazio-gaitasunaz jardutean zera eduki beharko genuke kontuan, ezen, familia-giroan, ingurune hurbileko erabilera-eremuetan, harreman-sareetan, eta abar, euskarak presentzia urria duenez gero, haien komunikazio-jarduna beste hizkuntza batean gauzatu izan dutela gehienbat, eta horrek eragina izan duela bai xede-hizkuntzarekiko atxikimenduan bai adierazkortasunean ere. Egoera hau gutxika-gutxika hobera doa, batetik, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenak haien seme-alabei euskara transmititzeko joera indartzen ari direlako, erabilera-eremuak indartzen ari direlako, eskolan baliatzen ari diren metodologiak hobetzen ari direlako, irakasleen hizkuntza-gaitasuna areagotzen ari delako, eta abar... Eta horrek guztiak belaunaldi berrien komunikazio-gaitasunean eragiten du, besteak beste, haien adierazkortasunean.

**Egoera gutxika-gutxika hobera doa: euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenak haien seme-alabei euskara transmititzeko joera indartzen ari da; erabilera-eremuak indartzen ari dira; eskolan baliatzen ari diren metodologiak hobetzen ari dira; irakasleen hizkuntza-gaitasuna areagotzen ari da.**

Hari berari tiraka, eskolan landu den hizkuntza-erregistroak zernahirako nagusitzeak hiztun berrien adierazkortasun-gaitasunean ere eragin du. Era berean, hiztunen adierazkortasunari eta egokitasunari bainoago gramatika arauak baliatzeari eman zaio askotan lehenetasuna, eta horrek hiztunaren komunikazio-egintzen arrakastan eragina izan du. Euskaraz hitz egiteko orduan hedatu den gramatikakeriaren morrontzak euskara erabiltzeko aukerak murriztu egin ditu. Oso zabaldua dago hiztunen artean hizkuntza zuzena ez erabiltzeko beldurra, beldurrak zalantza sortzen du eta zalantzak paralizazioa. Horrekin hausteko, leku egin behar zaio arau-hausteari, lasaitasunez hitz egiteari, gainera autoritate linguistikoaren arnasa sentitu gabe.

Halaber, euskarazko irakaskuntzari eusteko oso denbora laburrean irakasle kopuru andana euskaldundu edo alfabetatu behar izan da. Beraz, pertsona horiek egin duten esfortzua gogoan, ezinbestekoa da haien hizkuntza-gaitasuna indartzeko ahaleginari segida ematea.

Gertatu diren aurrerakadek besterik ere ekarri dute. Izan ere, euskaraz jarduten zuten eremuak ez dira berariaz eta lehenetasunez zaindu eta, horrek, lekuan lekuko hizkuntza-erregistroak higatu ez ezik belaunaldien arteko hizkuntza-erregistroen arteko etena ekarri du, hizkuntzaren garapenean eragina izan du eta tokian tokiko hizkuntza-erkidegoak ahuldu ditu. Euskararen ezagutza hedatzeari eskaini zaio arreta, baina belaunez belaun iraun duen tokietan haren trinkotzea deskuidatu da.

Edozein gisaz, orain arteko ibilbidea arrakastatsua izan denez gero, bere sasoian hizkuntza-ereduei buruz hartutako erabakia aldatzeko urratsak egiten ari diren honetan, munduan nagusitu den eleaniztasun printzipioak oso kontuan, garrantzi handikoa da gogorra ekartzea, gure ustez, hezkuntzaren eremuan aldaketak gutxika-gutxika egin behar direla, egin nahi dena orokortu aurretik aldeztatik probatuz eta balioetsiz, bitartekoak esleitu ahala jeneralizatuz, hezkuntza-erkidegoaren eta gizartearen borondateak arian-

-arian bilduz eta kohesioa landuz. Honek ez du esan nahi bere sasoian diseinatu-tako hizkuntza-ereduak bere horretan utzi behar direnik, baizik-eta komeni dela eraldaketa oro aurreko bideari segituz egitea. Krakatakoa gerta liteke bestela, eta kaltea ahulenari ekarriko dio, berreskura ezi-nezkoa beharbada.

Herritarren elebitasuna bultzatzeko bidean, irakaskuntza arautu eta derrigorrezkoaz gain, garrantzi handia izango du helduen euskalduntzeak ere. Komeniko da jarduera hori herritarren hizkuntza-beharrizan aldakorretara egokitua eta herritarren aldian aldiko hizkuntza premiei kalitatez eta malgutasunez erantzungo diena izatea. Horrekin guztiarekin batera, lan munduan bezala informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, nola baita ere hedabideetan, euskararen erabilera sustatzea izan beharko du helburu edozein hizkuntza politikak.

**H**erritarren elebitasuna bultzatzeko bidean, irakaskuntza arautu eta derrigorrezkoaz gain, garrantzi handia izango du helduen euskalduntzeak ere. Komeniko da jarduera hori herritarren hizkuntza-beharrizan aldakorretara egokitua eta herritarren aldian aldiko hizkuntza premiei kalitatez eta malgutasunez erantzungo diena izatea. Horrekin guztiarekin batera, lan munduan bezala informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, nola baita ere hedabideetan, euskararen erabilera sustatzea izan beharko du helburu edozein hizkuntza politikak.

### **Herritarren protagonismoa ez ezik herri-erakundeen aitzindaritza barnebilduko duen hizkuntza politika**

Dena ez dago herritarren borondatearen esku uzterik, herri-erakundeen aitzindaritza ere ezinbestekoa da, baldin ezberdintasunak orekatzeko moduan paratuko badira; inor baztertu gabe, euskararen erabilera gertatzeko erabilera-eremuak indartu, eskuratu eta hedatuko badira; ahulena denak –gure kasuan, euskarak– bizi-berritzeko egiazko aukerak eskueran izango baditu. Ez dago beraz, zoriak zer ekarriko pasiboki jarduterik, izan ere, herritarren borondatea eta herri-erakundeak eskuz esku joan behar dute hizkuntza kontuetan, baldin eta zedarritu ditugun helburuetara iritsiko bagara.

Herritarrek eskubidea dute hizkuntza ofizialetan –batean zein bestean– artatuak izan daitezen, eta herritarren eskakizun horri ganoraz erantzutea da herri-administrazioen obligazioa. Alabaina, herri-administrazioak ezin muga daitezke herritarren eskabideei erantzute hutsera; herri-administrazioek, askotariko herritar eta erakundeak bezala, hizkuntzaren normalizaziorantz hurreratze-

ko subjektu eta eragile izan behar dute.

Honek, besteak beste, administrazioak eskaintzen dituen askotariko zerbitzuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea dakar, zailantzarik gabe, boluntarismo oro baztertuz eta, besteren artean, administrazioko lan-

gileen euskararen eskakizuna erabilerarekin uztartuz, ezinbestean.

Urteetan administrazioaren zenbait ataletan jarduteko euskara-maila bat eskatu da edota arian-arian abian jarri diren plangintzek administrazioetan ari ziren asko euskalduntzeko abagunea eskaini izan dute. Urteetan, beharrak eraginda, hein handi batean, jatorrizko gaztelaniazko testuak itzultzeak berebiziko pisua hartu du herri-administrazioetan, alabaina hasierako urteetan ezinbestekoa zena, urteetan ohiko bihurtu da, eta horrek berak galga jarri dio euskararen garapenari, euskara gaztelaniatik hartutako testuen itzulpenen morroi bihurtu duelako eta arlo horretako euskarazko sorkuntza ezerezean utzi. Testuinguru horretan, inertziak astintzeko unea ere bada gaur egungoa. Barneko zein kanpoko askotariko jarduerak hizkuntza batean edota bestean era autonomoan garatzeko modua ere izan beharko luke administrazioak, euskara gaztelania bezala lan-hizkuntza bihurtuz, euskaraz jarduerarik apalenak ez ezik prozedurarik garatuenak ere gauzatzeko urratsak eginez. Zein zentzu dute, bestela, administrazioa euskalduntzeko planek, eguneroko jarduneko maila apaleko prozeduretarako ez ezik konplexuagoetarako ere euskara modu autonomoan erabiltzen ez bada? Zein ekarpen egiten dio normalkuntzari sormena albo batera utzita itzulpen-sailez funtzionatzen baldin badu herri-administrazioak?

## Herritarrak eta herri-erakundeak dira hizkuntza politikaren protagonistak.



Horrek guztiak eskatzen du paradigma aldaketa gertatzea, ezbairik gabe. Izan ere, lehenago euskararen osasun egoeraren adierazgarri erabilera dela esan badugu, ezinbestekoa da herri-administrazioetan euskararen erabilerarako jauzia ere ematea; euskaraz dakiten langileek egiten dituzten jarduerak kontuan hartuz, euskaraz egingo dituzten jardun-eremuak identifikatuz; langileek euskara jardun-eremu horietan baliatzeko moduan egon daitezzen hizkuntza-trebakuntzari lehentasuna eskainiz; gutxi eginagatik euskararentzat asko izan litekeela iradokiz; langileen eta agintarien atxikimendua etengabe bilatuz eta elikatuz; askotariko baliabideak eskuera jarriz, eta abar.

### **Erakunde publikoen eta pribatuen jardunaren arteko osagarritasuna ardatz hartu behar du hizkuntza politikak**

Euskararen alde egitea ez da bakarrik erakunde publikoei dagokien lana, guztion zeregina baizik. Alde horretatik, ezin da ahaztu erakunde pribatuek ere badutela hemen lanik. Nolanahi ere, kome ni da esatea, inork bere erantzukizunari bizkar eman ez diezaion, gizarte demokratiko batean herritarren mandatua eta ordezkaritza duten erakunde publikoei dagokiela hizkuntza politika definitzea eta garabidean jartzea.

Hortik aurrera, besteren artean, herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko asmoz, jardun pribatua edota gizarte-ekimena indartzea eta haien ekarpenak bideratzea ere garrantzi handikoa da, beti ere herri-aginteeek diseinaturiko hizkuntza politikaren osagarri gisa.

Horrela, bada, erakunde mota bakoitzaren egitekoei eta ardurei bizkar eman gabe, egiteko horien eraginkortasunaren mesedean beharrezkoa da hizkuntza politikaren garapenean askotariko erakundeen eta elkarten arteko elkarlana sustatzea.

## **LABURBILDUZ**

Euskararen Legea mamitu zuten irizpide eta printzipioak baliagarri zaizkigu oraindik ere, gizarte demokratiko eta gero eta anitzagoa den honetan, euskara indartzeko, biziberritzeko eta geroratzeko helburua lukeen hizkuntza politika bat gauzatzeko: euskararekiko atxikimendua, hizkuntza propioa, euskararen ofizialtasuna, herritarren eskubiak eta gizarte elebidun (eleaniztun) baten proiektua/ametsa.

Printzipio horiek, argi dago, hizkuntza politikaren esparrua finkatzen dute, ez ordea hizkuntza politika jakin bat zehazten: hizkuntza politika ezberdinak egin daitezke esparru horren barruan, baita neurri ezberdinak hartu politika bakoitzaren baitan ere, baina printzipiok bistatik galdu gabe, atzendu gabe eta ahaztu gabe.